

Perez Aregi - Manzisidor

DEUSTOKO ATEZAI


# GARATE

JESU-LAGUNA






ANAI GARATE



JESU-LAGUNA







**F. Garate. Josuren Lagundiko Anaia zana**







M- 83047  
F- 88146

ATV  
39236

DEUSTOKO ATEZAI

# GARATE

JESU-LAGUNA

PEREZ AREGI'TAR J. M., JESUSLAGUNAK

ERDERAZ IDATZITAKOTIK

MANZISIDOR ' TAR I. M., JESUSLAGUNAK

ATERATA



BILBAO

El Mensajero del Corazón de Jesús

Editorial Vasca, S. A. - 1986 - Bilbao

DEUSTOKO ATZAI

IMPRIMI POTEST:  
RUFUS MENDIZABAL, S. J.  
PRABP. PROV. CABT.

JESU-LAGUNA

NIHIL OBSTAT:  
JULIANUS EGUÍA, S. J.  
ERDEARAI IDATZITAKOTIK  
MANZIGOR, IAR I. M. VERGASADUNA  
ATZETA

IMPRIMATUR:  
✠ MATTHAEUS, EPISCOPUS VICTORIENSIS  
Victoriae, 3 ianuarii 1936



BILBAO

El Mensajero del Correo de Jesús

---

Editorial Vasca, S. A.—Banco de España, 3.—BILBAO



## O A R A

Elizaren seme zintzoak gera, eta il arte bere mendean bizi nai degu.

Gizon bat deuna, santua, ote dan, ez ote dan, Eliz Ama Deunak bakarrik erabaki dezake. Pozik aitortzen degu Elizaren eskubide ori.

Oregatik, idaztitxo onetan, «gizon santua, gizon deuna eta»... orelakoak Anai Garatetzaz esaten ditugunean, itz oiek ez dira artu bear, aldaretan daudenetzaz esaten ditugunean bezela, ez! Orduan, ezbairik gabe esaten ditugu, Elizak orela erabaki dualako.

Oraindik ordea, Elizak ez du Garatetzaz ezer itz egin. Zer esan nai degu ba, santu deitzen diogunean?

Auxe bakar bakarrik: gure iritziz, txit onazala.

Oso onak diranetzaz, beñiz, oraindik bizi dirala ere askotan entzun oi degu: «oso gizon deuna dezute ori, guztiz kristau santua».

Ortik auferakoa Elizari uzten diogu.





---

---

## Itz-aurea

Urte onen asieran argitaratu da, lenengo aldiz, Garate'tar Prantzisko Jesulagunaren bizitza.

Ez da berealakoan atera! aspalditik idazti oñen zai geunden Jesu-Lagunok.

Sei urte bete dira Anai Garate il zala; ordutik asi ziran aren bizitza berealaxe atera bear zala-ta. Azkenean bere eñitar batek, Perez-Aregi'tar J. M. Aba, azpeitiañak, argitaratu du. Txukun argitaratu ere.

Oso ezaguna zun Perez Aregi Abak Anai Garate. Urte askotan bizi izan bai dira biok batera Deustoko Ikastetxean. Orezaz gañera, Perez Aregi Aba bera ibili da arutz eta onutz, Garateren beñi jakiten. Ate joka asko egin du, joan diran urte oetan, ta azkenerako aren bizitza ondo baño ondo ikasi du.

Oregatik idazti oso apaña atera digu, bete betea, polita... baño erderaz.



Garate beriz euskalduna izan, Loyola aldeko *Ereñarte* baseñian jayo ta asitakoa. Txikitan ikasi zun izkuntza, etzun beriz iñoiz aztu; il arte (bizi zaizkion bere anaiak esan didatenez) euskaldun iraun zun.

Deustoko atarian, geienetan, erderaz egin beañean izaten zan, baña al zuanean, (zijoazkionak euskaldunak ba ziran) sañi euskeraz egi ten zun. Eta erderaz jardun-da ere, aren izketak euskel usaia aundia izaten zun.

Aren etxeakoak, euskaldunak dituzu, eñitak berdin; arekin Deuston bizi izan diran mutilik asko ere bai. Beste asko ere izango dira, erderaz baño euskeraz eñezago eta pozikago irakuñiko dutenak aren bizitza. Oientzat eratu det idaztitxo au.


Gauza geienak, ia guziak, erderazko Perez Añegi'ren idaztitik artu ditut; beste gutxi batzuk neuk jañi: Erderazko idaztitik artutako oiek, batzuetan neuk nere erara josi ditut; bestetan eñex eñex euskeratuta utzi.

Ume nitzala Orduñara joan nitzan ikastera...

Aruzkoan nere aita zanak (goian bego) Deustora eraman niñun, eta bidean edo, gizon santu bat antxe bizi zala ta jardun zidan. Garatetzaz ari zan. Geroztik gure etxean askotan aitatu izan degu Garate.

Oñegatik ere, pozez jardun det lan onetan






Anai Garate jaio zan Erekarte baseña







Efekarte basefiko inguruak. Erdi-erdian, basefia





Or, irakurle, idaztitxo onen beñi itz gutxitan.  
Jainkoak onetsiko aldu Garateren bitartez.  
Ezkeñak, emenditxik, lan onetan lagundu  
didatenai; Zaitegi Aba, eta Zapelena Anaiari  
batez ere.

Marneffe'n (Belgique) 1935'gañenean.

---





## GUZIA ONDO...

1929 gañengo Agoñaren bederatzian, goizeko zazpirak aldean Jesulagun gipuzkoar bat azkenetan zegon, Deustoko ikastetxe aundian: deunen pañe iñia ezpañetan, pakez arpegia, Jaunagana jasota biotz-begiak. Gipuzkoako zaindari, Arantzazuko Amaren eguna zan...

Bereala zabaldu zan il beñia Bilbo'n; gero-txoago Euskal-erri osoan: «Anai Garate il da; Deustoko atezai santua il da». Bizkaiko izpa-ñingi katoliko guztiak aretzaz orduan mintzatu ziran; orok deuntzat jotzen zuten: Euzkadik, El Pueblo Vasco'k, La Gaceta del Norte'k, La Tarde'k... guztiak. Ezagutu zutenak ere oro-bat; beste ainbat Jesus'en Lagundi-tañ danak.

Ta ala ere gizon ark luditañen begietan ezer aundirik etzun egin bere bizi guztian. Iñoiz etzun itzaldirik egin, idaztirik ere ez; ez baizan jakintsu, ez ta ere agintari... Ate ondo baten igaro zun bizitza osoa; zuk, irakurle, lantegian edo baseñian jarduten dezun lanetan. Nundik nora ba santu, deun?!

Igazko Pentekostes igandean, Eñoma osoa erbestekoz gañezka zegon. Goizean goizetik Batikanoko Eliza ta elizaldeak gizon ta emaku-



mez josita zeuden; izkuntza askotakoak ziran. Ia, lenengo Pentekostes egunean Jerusalem'en ainbat izkuntz nastu izango ziran.

Aita Santuak beñiz ere ludiari azaldu nai zion ez dala ez gezuía «Kredoan» egunoro aitortzen deguna: «Siñisten det Eliza Santu Katolikoá»; Elizak deuntasunerako daukan indaía ez dala aitu! oraindik eze dagola, ez dala igartuko...!

Egun artan, deunen artera alemaniar bat jasotzera zijoan Aita Santua: Altoeting'o kaputxinoen atezai Konrad Deuna; konbentu zaíreko ate ondoan, gure Anai Garatek Deuston bezelaxe, bizitza igaro zuna.

Meza nagusia Aita Santuak eman zun. Meza erdian, oi danez, itzaldia ere berak egin zun. Deun beñiatzaz mintzatu zan.

«Ate ondo baten nola deundu beste gabe gizona?» galdetu degu lentxoago. Ara Aita Santuak erantzuna:

«Lur onetako Eliz baratzan, neskutzen lora zuriak badira; baita martirien lora goñiak ere; igali ugariz ta ostroz jositako zuaitz aundjak ere bai. Oien artean bioletatxo (lili-ubel) apal eta ixkutuak ere azten dira ordea, usai gozozkoak ala ere. Loratxo auetako bat da, apaltasunez, gaur, Pentekostes egunean aldarera jaso degun Parzham'go Konrado. Zeredorzergatik Jainkoak nai izan du gaurko egunez deunen ar-



tean Konrado jartzea. Izan ere inor izatekotan deun au izan baida Espiritu Santuaren deiari pozik eta gogo onez beti erantzun diona. Oregatik bere buruari ezañi zetzazkean, bizi osoan, eta egitan ala ere, Jesukristok esandako itz Jainkozko aiek: «*Quae placita sunt ei facio semper*» (1) «Ari (Jaunari) atsegin zayona egiten det beti».

Beraren Ordenako nagusiak atezaitzea agindu zioten; ez lan ariña eta nolanaiko arduraz egin zezakeana ere ez. Zeregin oretantxe alegiñak egin zitun, deuntasunezko mendi goraño igotzen; ta baita igo ere. Egia da, beraren eguneroko lanetan ez dala arkitzen inor añituta gelditzeko gauzarik, egia; baña gauza guztiak zintzo bete zitun, Jainkoaren ta gizonenganako maitasunak, ta erlijioak agintzen zion bezela: «*Bene omnia fecit*» (2) «Dana ondo egin zun.» Oregatik egitan esan dezakegu deuntasuna ez dala bat edo birentzat bakañik ixkutatuta dagon añipitxia, ez; guztion egin beara dala. Deuntasuna ez da inork ez bezalako doaiak dituztenena, edo Jainkoak era bereziz aberastu dituen batzuen bakañik, ez! deuntasuna kristauok iritxi dezakeguna ta atzitu bear deguna da».

Ondoren Aita Santuak azaldu zun deunta-

---

(1) Ioan. VIII, 29.

(2) Marc. VIII, 37.



sun galur ortara igotzeko zer bide uratu zitun Konradok, ta ori dala ta, aren garbitasun lirain ta apaltasun sakona aotan artu zitun. Gero beste aren zantzu (marka) bat aitatzen du. Ara: «Guztiok ezagutzen dezute, nere anai agurgari ta seme maiteok, gure deun onek zer nolako atsegiñak izan oi zitun Aldareko Sakramentu guztiz deunaren aurrean auzpez egoten; antxe gau ta egun bere biotza otoi ta aren sutuetan ixuritzen; Jainkoaren ta gizonenganako maitasunean kixkalita bizi bai zan. Lanez ingurututa bizi izan zan; mila artu emanen ardura berak bai zeukan, ta ala ere aren biotza Jainkoarekin bat eginda zegon» (1).

Entzun dezute! Deuntasuna ontantxen dago, Jaungoikoak nai duna egiten, ondo egiten. Ori beñiz nun nai egin leike, Parzham'go Konradok konbentu zateko ate zaitzen egin zun; Anai Garatek Deustoko ate-ondoan beste ainbat lortu dula uste degu.

Aita Santua Konradotzaz ari zala jakin ezik, Garate ezagutu zutenak, Deustoko ate zaietzaz ari zala usteko zuten: alakotxe alkarren antza ate-zai biak!

Bai! Eleizako lora baratzean, Konradoren antzekoa izan da Anai Garate, loratxo ixkutu bat.

---

(1) Acta Apost. Sedis 5 Jun. 1934.



Gizonengandik bere burua ixkututzen alegindu zan, baña urútira ere zabaltzen zun deuntasunezko usai gozoak zalatu zun.

Añigañizko gertakizunik ez degu arkituko beraren bizitzan; baña «*Bene omnia fecit*» gauza guztiak ondo egin zitun. Auxe da aren gauzarik txalogañiena: Jesus'en Lagundian eman zioten eginkizunean, deuntasunik aundiena iritxi zun.

Iñaxio Deuna, Loiolan zaurituta egon zanean, Deunen bizitzak irakurtzen asi zan. Aiek Kristo zala-eta egin zituztenai begira txoratuta egon oi zala, berak gero aitortu zun. Eta bulardetsua zanez, bere baitan esaten omen zun:

«Prantzisko deunak orélako egin zuala...? Nik ere egin bear det ba!! Domingo deunak beste ori egin al zun? Nik ere bai ba, egingo det!!»

Eta ortan uste gabe orduak igarotzen omen zitzaizkion, Kristoren alde zer nolako miñak eta oñazeak bere buruari emango zizkion, pozik oldozten, pentzatzen.

Guri askotan besteraka gertatzen zaigu. Deun askoren bizitza irakuñita, «ori ez da neretzat, nik ori ezin det», esaten degu. «Deuntasuna nere eguneroko lanetan iritxi banezake, erosuago ba legoke... orduan bai pozik...»

Egitan? Emen ba egunoroko egin-beařetan deundu, santutu zana.

Irakuñi, eta bere antzera jokatu!



## ERREKARTE'N

### *Garatetafak.*

Ondo ezaguna da aspalditik Azpeitiko eña, Iñazio Deunaren jaioteñi bezela. Eñi ortan bertan jaio zitzaigun ba gure Anai Prantzizko ere.

Iñazio Deunaren Etxe santuaren inguruan, lenago Loyola'ko Jaunarenak ziran sailetan, baxetxe asko dira, an da emen sakabanatuta, bata bestearengandik uréan. Berez polita dan tokia, askozaz ere politago ta apañago egiten dute beren txuri ta txukuntasunez. Etxe oietako bat, Loyola'ko etxe nagusitik bertan, eskubiko aldera ERREKARTE dezu. Antxe etoñi zan lur ontara Garate'tar Prantzizko Anaia, 1857-garéngo San Blas egunean, Otsailaren 3-an.

Beraren gurasoak nekazariak, langile puñkatuak ziran: Zintzoak eñuz, Jaungoikoaren bildurekoak, eleizkoiak. Aberastasun aundirik etzuten; estuzunik ere ez ordea: ordun baseñiko bizitza ezer aundi gabe izan oi zan da; maizterak izanik, zeuzkaten luñai bear zana ateratzen bazekiten; ukuloan ere, beñiz, bei ta txalak berenak zituzten beintzat: oregatik aundikeririk gabe, baña lan egiñaz pake edeñean lasai bizitzeko aña bazuten.

Prantzizkoren aita, (Prantzizko zeritzan be-



ra ere, semea bezelaxe), Azkoitikoa zan. Bi al-  
ditan ezkontuta egona zan. Lenik, Azpeiti'ko  
Aranguren-dar Mari Joxepa'kin. Onen alargun  
gelditu zanean, bere andre zanaren aizpa Mari  
Batiste emaztetzat artu zun. Oretarako bear zan  
baimen eske Eroma bertaraño joan zan gure  
gizona: beraren seme batek esana degu ori,  
ta alaxe zan; izan ere ezkondu ere Eroman  
egin ziran. Gizona bakañik juan zan aruntz, ba-  
ña andreagaiak bere ordekoa biali zun: bitar-  
tekoz egin zan ba ezkontza. Gero, Azpeitiko  
eleiza nagusian, bitartekoz egindakoa, bear be-  
zela baieztu zuten. Ara emen oren agiria eus-  
keratuta:

«1852-gaŕen urteko Epailaren 22-an Azpeiti-  
-ko Soreasuko Donosti eleiza nagusian, bertako  
Eretore naizan onen auŕean, Garate'tar Pranz-  
tzizkok ta Aranguren'dar Mari Joxepak ontzat  
eman zuten, lenago, bitartekoz egindako ez-  
kontza. Ezkontz ori Eroman egin zan, Agustin  
Deunaren elizan, Epailaren 5'an; ezkon-anaia-  
ŕebak ziralako sortzen zitzaien eragozpena Aita  
Santuak barkatuta. Prantzizko Azkoitiaŕa da,  
baña nere eleiz-auzokoa; Azkoiti'ko ta Azkoitin  
bizi diran Garate'tar Jose Antonio ta Aŕieta'tar  
Mari Joxeparen semea; oraintxe 15 ilabetetik,  
Aranguren'dar Mari Joxeparen alargun.

Aranguren'dar Mari Batiste eŕi ta eliz one-  
takoa da; Aranguren'dar Juan Bautista ta Oyar-



tzabal'dar Ana Mariren alaba, efi onetakoak ta efi onetan bizi diranak biak.

Ziñaldari (testigu) izan ziran Abalia'tar Joxe Joakin, Beobide'tar Prantzizko ta beste efiiko zenbait. Oroekiko itz ematen det.

Abalia'tar Jose Manuel Jauna.»

Ezkontz onen emaitzak zazpi izan ziran : lau mutil ta iru neska. Mutiletatik iru erlijioan sartu ziran, Jesulagunetan irurak. Beste guztiak urte askotarako etziran jaioak izan. Guztietzaz itz gutxitan zerbait esango degu.

Seme zařena, etxean gelditu zana, 1852' gařengo Uřilaren 5-an jaioa zan. Gazterik, oraindik ezkongai zala, il zan. Ořen ondoren gure Prantzizko zan, 1857' gařenean, len esan degunez, jaioa. 1859' gařengo Lotazilaren 14'an beste seme bat izan zuten, Inazio, Prantzizkoren ondoren Jesuren Lagundian sartuko zana ; oraindik bizi da. Auřeneko nexkatxa zerurako bakařik jaio zan nonbait ; amar ilabete gabe an goian zan.

Gizakumetatik azkena, 1864-gařengo Dagonilaren 4'koa da, Domingo Andres, ondo ezaguna Loiolan azkeneko urtetan izan diranentzat ; atezai izan bai da antxe luzaro (1). Ondoren bi neskatx jaio ziran : zařena bi urtez ze-

---

(1) Anai Andres Garate, oraindik orain, (auek idatzi ezker) Donostin il da.



rura egan egiteko; bestea, Mari Kristine ezkontzeraño etoñi zan, baña 24 urte zituala il zan.

Seme-alabok Erekarten jaioak ta aziak ziran; aietakorik ezta an gelditu, ondorengorik ere ez. Beste batzuk artu zuten aien baseña.

### *Aurtzaroa.*

Anai Garate'ren umetako beñi aundirik ez degu. Jaio ta urango egunean bataiatu zuten bere eñiko eleiz parokian. Ara emen bataioa artu zuneko agiria.

«Miña zortzireun ta beñogeñi ta zazpigañengo Otsailaren lauan, Azpeiti-Soreazuko Sebastian Deunaren eleiz aundiko apaiz buru naizen onek, eleiz onetan bertan bataiatu nun Blas Prantzizko Mari, auñeko egunean eguerdiko amaiketari jaio zana. Azkoiti'ko Garate'tar Prantzizkoren ta eñi onetako Aranguren'dar Mari Batisteren semea da. Bere aitonak, aitaren aldekoz, Garate'tar Jose ta Añieta'tar Joxepa, Azkoitikoak. Amaren aldetik Aranguren'dar Juan Batista ta Oyartzabal'dar Ana Mari, biak eñi onetakoak. Aita-amabitxiak: Aranguren'dar Joxe Mari ta Alkorta'tar Prantzizke: auei bear zana oartu nien.

Abalia'tar Jose Manuel Jauna.»

Urango urtean, Urñilaren 26'an Sendotzako Sakramentua artu zun, bere anai Juan Jose're-



kin batera; Iruña'ko Gotzai agurgarí zan Adriani'tar Sebe'ek eman zion: jakin, garai artan oraindik Azpeiti'ko e'ria Iruña'ko Eliz ba'rutikoa zala; Gazteiz'korik etzan.

Bataio agirian ikusten danez, gure Prantzizkoren lenengo izena Blas zan; alaere beti biga'ren izenez deitzen zioten, bai etxean bizi izan zan artean, baita gero Jesusen Lagundian ere. O'regatik guk ere o'ela deituko diogu.

Etxean ikasi zitun i'non ba'ño lenago ta obekiago kristauaren jakin bea'ak eta egitekoak, bere gurasoak irakatsita ta aiek zijoazten bidetik ja'raituaz. E'rekarte, kristautasuna gauza guzietan agiri zan txoko gozoa zenun: Prantzizkoren aita-amak, azkazkalera'ño, esan oi danez, ziran guzia, kristau ziran. Oraindik bizi diranen esanaz, etzan etxe artan egun bat ere igaro Andre Maria'ri agurtza esan gabe; danik eta nekerik aundiena egun artan izan bazuten ere. Amabostetik be'iñ, ta jairik aundienetan, etxeko guztiak aldare maira u'eratzen omen ziran; ordurako asko zan. Igande ta jaietan be'iz beti meza nagusira, e'riko eliz aundira, goizean txikiren bat entzunda gero. Bazkalondoan, etxean bertan Gurutze bidea, ta gero bezperetara elizara.

Urtearen buruan, beste jaiera on asko ere egiten omen zituzten danak batera etxean: Andre Mari'ren i'la, bederatziu'enen bat... eta





Loyolaren aldamenian. Loyolatik onuntz gurutz bat dakañen etxia, Erekarte baseña da







abar. Esan beańik ez, ońela Jaungoikoaren maitasunaren su gańak ińoiz ere itzali gabe irauten zula etxe maitagańi artan: egitan euskaleńiko basetxeen eredu izan liteke.

Auetzaz gańera, egunoro joaten zan gure mutińa bere anaiakin, Loyolako Josu lagunak irakasten zuten dotrińera; ońela, jakińa, nai ta nai ez artu bear buru biotzean kristau ikasbidea.

Gurasoengandik berealaxe ikasi zun Aita San Inazioarenganako eraspena, ta biotzerańo sartu zitzaion. Izan ere egunero ikusten bai zuten bere begiek, auńez auńe, atariko atean, Loyolako etxe aundia; ez bai zitun osterara gutxi bider ikusten Aita on aren semeak: dotrińera zijoanean eta, Loyolako eliz jaietan, eta Erekarteko inguruetan, aruntz eta onuntz iruneka-iruneka ibiltzera zijoaztenean eta... nik al dakit zenbat bider geiago!

Laster ba, ińork erein gabe, bat batean sortu zitzaion biotzean aienganako joera, Jesusen Lagundirako deiaren (bokazioaren) azia: azi ori etzan alpeńik galtzeko sortu, bere garaiean igalia ekańiko zun; ez bai zegon izan ere toki txańean, kristautasunezko lur lodi zan etxe onean, alajańa.

Zortzi bederatzi urte izango zitun, gurasoak eskolara bialdu zutenean. Orduan etzan Loiolako ausoan geroago ipińi zuten eskolarik; ońegatik egunean lau aldiz kilometro t'erdiko bidea



egin beaŕean izaten ziran Eŕekarteko mutilak, bi aldiz giozean eta beste bi aŕatsaldean: Azpeitiko eŕiko-ikastolara juan bear izaten bai zuten.

Prantzizkok lenengo Jaunartzea noiz egin ote zuan, ziur ez dakigu; orduko oitura amaika urtez egitea izan oi zan; oŕela nonbait ark ere egingo zun. Oso mutil ona zala bere anaiak diote; ez omen zun, ordea, mutil onak izan oi dutenez beste ezer geiagorik; alegia, mirarizko gauzarik-eta etzuela ezer. Zintzoa bai, ta gero izango zitun ekandun (birtute) eder aiek ordutik beren anaien artean ageri zitzazkion.

Amak askotan jartzen omen zieten beste anaiei eredutzat, okeŕen bat egiten zutela-edo, agindutakoa egiten etzutelako asaŕe ari zanean: «Begira Prantzizkori, esaten omen zien, au ez da zuek bezelakoa: oŕek esandakoa egin, ta agindutako guztian laguntzen daki». Au Andres ta Iñaziogandik jaso degu.

Mutil koxkor zanetik Andre Mari eta Estanislao Deunaren bilerakoa izan zan. Bilerari, eta Luistaŕak eta Mariaren alabak, Agustin Deunaren eleizan bildu oi ziran. Arutz joaten omen zan ba Prantzizko, Jaun-artzea zuten guztian. Bere orduko adizkide anai Landak eman digu oŕen beŕi (1).

(1) Anai Iñaxio Landa, Loiola aldeko Eŕekartetxe'ko semea dezu. Garateren txikitako laguna. Orduñan ere gure Prantzizkokin



Orela azi zan Prantzizko, aitaren eta amaren ondoan.

## BIDEZ BIDE

Amalau urte zituala, irten zan etxetik Orduñarako; an, mofoi egon zan alditxo baten, bi edo iru urte, Jesu lagunak zeukaten Antigua'ko Amaren ikastetxean. Jesu lagunak garai artan guretatik erbesteratuta zeuden; ala ere Jaungoikoak nai izan zun Orduñako uri paketzuan aietako zenbait gelditzea, batzuetan pakean ta besteetan noiz irten bearko belduéz, Jaungoikoaren maitasunean ta jakintzan gazte asko azi ta ezteko.

Iru bat urte egongo zan Orduñako Ikastetxean Garate'tar Prantzizko. An zer egingo zun? Lenengo, erdera ikasi, oretarako joaten bai dira gure baseñietako mutilak mofoi jesulagunetara; beste zerbait ere ikasiko zun.

Anai Landak esaten duanez, gure Garate, gaxozaiaren laguntzale izan omen zan urte oietan, eta eskutitzak koñeora eramateko ere, bera omen zan. Etzan edonor, nunbait, orelako lanak bere gain artzeko. Ala ere egun baten eskutitz

---

batera egon zan mofoi; eta gerotxoago, Poyanne'ko Nobiziadura joan zanean, antxe arkitu zun beñero txikitako laguna. 1877 eskero ez omen zuten geiago alkar ikusi: Garate gure artean gelditu bai zan, eta Landa Toledo'ko Jesulagunetara bializuten. Oraindik bizi da, Chevetogne'n (Belgique) Toledoko Jesulagunak duten ikastetxean.



bat galdu omen zitzaion. Gizajoal aren estusuna...! Aita Nagusiak berak jardun bear izan omen zion gauza utza zala-ta ez geiegi estutzeko.

Antxe aukeratu zun gerorako bizibidea, eta Jaunari jañaitzeko erabakia.

Azaldu zien bere naia gurasoei; auek bereala baiezkoa eman zioten, eta pozik eskeñi ere Jaunari, kristau onai dagokienez, beren seme maite ura.

1868-gaíengo matxinadak Españitik atera zun Jesusen Lagundia. Banaka batzuk, ixkutuan da abar, emen zebiltzan oíregatik ere. Baña Jesulagun gazteak, obeto esateko jesuita landarak, ikasten eta zebiltzanak erbestera joan beaía izan zuten; an, emen etzeukaten pake gozoa arkitzeko.

Loiolako Jesulagunak Bidasoatik arutz, Prantzi ego aldean, Poyanne zeritzan Landes'ko eñitxoan arkitu zuten egon tokia. Amaika urte zitun Prantzizkok, Jesulagun guztiak Loiolako etxe maitetik uxatuta Prantzira bidean igesi ikusi zituanean... Sei urte geroago bera ere aien ondoren erbestera zijoan, Jainkoaren izenean bere etxea ta luíaldea bear bada betiko utzita...

Iru gazte ziran Poyanne'ko lekaidetxera (No-biziadura) joatekotan. Bat Orduña'ko ikasmuti-ía, Zabala'tar Lorentzo (aspaldi onetan Aita Zabala); oni zor dizkiogu beñi auek. Beste biak ikastetxe artan bertan moíoi egon ziranak, Az-



peitiaiak biak, Prantzizko Garate, ta Loiolako Katalango beseñikoa, Bereziartua'tar Jose Iñazio.

Irurak gurasoen ondoan eguañi egunak igarota, juatekotan ziran; Loiolan alkar artuko zuten Ilbeltzaren lenengoetan, ta andik irurak batera Poyanne'ra.

Geñá bete betean ari zan; Euskaleñi dana su ta gar zegon. Gure gazteak beñiz gudara deituak izateko garaia etzuten uruti. Ori zala ta, ixilean, iñori esan gabe emendik Prantzirakoa egitea erabaki zuten. Iñon gelditu beañik izan etzezaten bear ziran neuñiak artu zituzten auñetik. Agiririk ta pasaportetik batere ez! Oñez joango ziran Prantziko muga igaro arte; mendiz al ziran bide zigor ixkutuenetatik, eñitik al zan guztia alde egiñaz. Bide lagun, Azpetiar bien aitak izango ziran, bideak ezagutzen etziran makalak eta. Poyanne bertaraño lagun egin nai izan zieten gañera.

Oldoztu (pensatu) bezela egin ere. Goizean goizetik Loiolatik atera ziran; egun guztian jo ta jo, aldatza igo ta aldatza jatxi, mendi guztiak igarota, ilunabañerako, iñungo ezbeañik gabe Bidasoan ziran. Txalupan ibaia bestealderatu zuten, eta iñoren eragozpenik gabe auskaldeko luñean sartu ziran. Zuzenean Donibane Loitzura jo zuten. An Jesusen lagundiko adizkideen etxean apai-legea ta gaba. Biaramon goizean Dax'era bultzian, trenean; Dax'en Poyanne'rako zaldi gurdia artu zuten.



## ERBESTEAN

Etzuten beren poza saltzeko, ibilune luzearen ondoren, onik Poyanne'ko lekaidetxeko (Nobiziaduko) atarian ate joka asi ziranean. Ba'rukoak ere etzieten begitarte txar'a egin. Gozoro askorik artu zituzten ango orduko nagusi Feliu'tar Aita Bonaventurak ta lekaidetxeko iraskale zan Aita Bizente Gomez'ek.

Gelditzeko eto'ri ziran, eta baita pozik gelditu ere gure iru mutilek. Aitari antxe egin zion Prantzizkok betiko azken agur'a; etzuten geiago ludi onetan alkar ikusiko. Ur'engo urteko O'rilaren ogei ta amaikan, E'fekarten il zan barse'riko gizon on ura; bere azken gaitza naperia (basztanga) izan zan.

Jesulagunak, sarbe'ri (nobizio) izan ba'no len, alditxo batean lekaidetxean bertan sarbe'ri-gai egon oi dira. Etzan luzaroan egon Garate. 1847-ga'engo Otsa'ilaren 2-an lekaidekien artean, Jesusen Lagundiko bizitzari, anai laguntzale bezela ekin zion. Ama Birji'na Kandelari eguna zan; bigaramonean, San Blas, amazazpi urte zetozkion.

«Izuga'izko poza izan nun (Landa Anaiaren itzak dituzu) Poyannera eldu nintzanean, ainbeste lengo adizkide ikusi-ta. Anai Garate ipi'ni



zidaten lenengo egunetan laguntzat, gure artean esan oi danez, aingerutzat. Aretxek irakatzizidandan nere eginbeařak. Sarberı (nobizio) laguntzale guztien buru bezela zan.

Neri, gaxo zegon anai zar baten ardura eman zidaten, eta bai ta argiontziena ere. Bietako astia banun, baña gure anai zar ori, nik alde egin orduko nere otxka zan eta etzidan ezertan uzten. Alako baten neri kendu eta, Garateri eman zioten zar ořen ardura. Egun guztian arekin egon bear izaten zun, ia jolasera ere etortzeke; ořela egon zan anaia il zan arte. Gaxo zaiaren lagun ere bera zan».

Guztiz ontzat omen zeukaten lagun guztiak gure anai Garate. Izan ere Jesusen Lagundiak ez die nolanaiko deuntasuna bere semeei eskatzen; ořegatik asieratik ekin zion Prantzizkok, jo ta ke, gañur ortara igotzeko. Ařezkero begibegira zeuzkan anai guztiak; zerbait bilatzen zioten, besteak etzutena.

Gai onetzaz ořa Aita Klaudio Garzia Herrerok esaten diguna: «Aita Rikardo Garzia ari zitzaidan bein, nolako lanak artu zitun esaten bere izakeraz atsegiña ta otxana besteentzat izateko; orobat begiruneko (modestiako) gure arauak betetzeko. Ta esan zidan, Poyanne'n zegon bitartean, bi artu zituala ořetarako ixpilutzat: apaizen artean Aita Uřaburu bizkaitařa; anaien artean Garate».




An bizi izandako beste batek aitortzen du Anai Garate Jesu lagun zintzoa, alaia, langile zala; beti nori lagunduko zai zebilela; paŕe gozoak eragiten ere, bai omen zekien.

Lekaidegai aldiko (nobiziaduko) urte biak eginda etziran nagusiak aretxekin asarŕe; pozik utzi zioten bada Jaunari betiko eskeintza Jesusen lagundian egiten. Egin ere 1876'ko Otsailaren bian egin zitun bere botoak.

An gelditu zan urte artan ta urŕengoaren lenengo zatian. ¿Ze lanbide berezitan jardun zun an egon zan bitartean? Ez dakigu. 1877'ko Jesulagunen zerŕendan (katalogoan) an ageri da bere izena, ta ondoan auxe jartzen dio, «*ad domestica*», «etxe lanetarako.» Alegia etxean beaŕ zan toki guzietan laguntzen zuala; orain ontan, gerotxoago artan. Etxe aundietako lan txikiak asko izan oi dirala badakizute. Ala ta guztiz, inun baño geiago gaxotegian jardungo zuala uste degu; geroko amar urteetan beintzat gaxozai egon zan, eta auŕetik nola nai ere zerbait ikasten egongo zala uste degu.





Poyanne'n (Prantzian) dagon etxe ontan asi zun Anaiak bere biziera befia







## GALIZI'N

La Guardia Galizi'ko eñi koxkor poliña, Portugal'eko muga mugan dago; Pontebedra'ko probintzin. Antxe zuten orduan Jesulagunak ikastetxe aundi bat. Araxe joan zan Anai Garate 1877-ga'engo urtean, uste degunez San Migelak aldera, ikastaroaren asierarako ortxe nunbait. U'engo urteko Ze'endak ikastetxe artako jesuite artean dakar beraren izena, an zun zeregiña, izenaren alboan duala: *Infirmarius* gaxozai.

Ez da lan e'esa ainbeste mutiñ ta gizon bizi diran etxe aundian gaxozai izaten: lan neketsua bai da, ta ardura aundiko gizona izan bear da ortarako; biguña, guztiei ondo egiten dakiena. Ba lagundiko nagusiak zeregiñ orixe eman zioten ogei urteko mutiñ gazteari; lagundian ere iru urte besterik etzitanari. Etzirudien nunbait nolanaiko gizona, ez izan ere. Laster ikusi zuten beren begiz nagusiak ta etxeko bizilagun guztiak etzirala atzipetu lekaide gazte ura zala-ta; deuntasunaren ituñi aundi bat zeukala biotzean berialaxe nabaitu zioten.

Amar urte igaro zitun zeregin o'etan; beste zenbait lantxo ere izaten zitun ordea. 1882'tik beintzat, al zuan guztian eleizaiari (sakristauari)



laguntzen zion. Bizi osoan arentzat zeregiñik gogokoena auxe izan zalako, au aitatzan da : eleizai edo eleizaiari laguntzea ; ta ori, aldareko Sakramentu Santuarenganako naitasun ta jaiera biziak nai ta nai ez bereganatzen zuelako.

Gaxo zaitzen norañoko aítaz bere lanak egiten zitun, ezin esan érex. Gai onetzaz begira zer idatzi dion Perez Aíegi Abari, orduan an ikasten ari zan, Marin del Campo Jaunak. Au urte askotan Madrیده'ko izpaíngi katoliko «El Siglo Futuro»-ren idazlari izan da. Ara zer dion :

«Nola aztu Anai Garate! Iru ikastetxe zuzentzen zituzten aldi artan La Guardia'n Aita Tomas Gomez ta Aita Txomin Landa'k. Batak bestearekin zer ikusirik etzuten iru ikastetxeak : bat zan *bachiller* egiten ari ziranena, bestea *kaíera* edo kaíeretako gertutzen ari ziranentzat ; irugaíena beartsuen Apaizgaitetxea deritzana, geroko Comillas'en azia, auékoa Deusto'rena izan zan bezelaxe.

Iru ikastetxeetan gaxozai bat besterik etzan ; ori, Garate aundia. Ikusi ba zenduten guk ainbat aldiz eskaíetan gora ta bera, bi edo iru banda aundi, basoz ta kopaz ta salda-katíluz ta nik ez dakit zerez bete beteta eskuetan izaki, eíietara etoíi oi diran komediantetako bat zala usteko zenduten ; alakotxe arin ta érex eramaten zitun iñoiz ere apurtzeko bilduñik gabe ainbeste tresna. Udabeñi baten gure artean zabaldu zan



Aita Landa'k galerazi egin ziola Anai Garate'ri garizuma artan barau egitea; izan ere okelak beraka zijoazkion, bizkortasunak irauten ba zion ere. Anai laguntzaleen artean iñor etzala ura baño geiago eginbeaiaz betetzen esan dezaket. Beti alai, paéz-paéz, umore oneko beti; baña iñorekin geiegizko adiskidetasun ezbeaírik etzun; ortan ere mutila zan.

Galizi-ko zero euritsuak ez niñun ondu artu. Lau urte egin nitun ikastetxe artan, kaíeratako-entzat itxi zan arte. Lenengo urtea osasunez ainbestean, baña ez ondo; bagaíenean gaizki; irugaíenean txarkiago arkitzen nintzan: laugaíenean iñero izaten nun estaí bronkiotako eraso gogoía. Azkenik ezagun ezaguna izaten nun, sukar bizi bat... ta gero kito, uíengo iñabete arte aldegiten zun. Nere makal aldi oietan naiko lan izaten zun nerekin Anai Garate'k; baña bai neuk ere gogoan artu arek egin zidan ainbeste ontarte. Ta agur egin nionean, iñorekin gertatu etzaidana, arekin gertatu zitzaidala esan bear dizut: negar egin nun gizona, agur egiterakoan, ta negar ez gero nolanaí sotinka alajaña!

Ara: andik alde egiteko eguna etoí zitzaidan, ta gure Garate azaldu ere ez. Ni ez negon nere onean ari zerbait esan gabe ta deitu nion etortzeko. Bereala etoí zan. Biotz biotzez ezkeák eman nizkion nigatik egin zitunen ordañez, eta orduan bat batean bururatu zitzaz-




kidan ark neri lau urten buruan egindako ontarte guztiak; biotzak palast egin zidan; ezin geiago, ta eman nion negaári ume bat banitz bezelaxe. Andik auferakoa malko artean izan zan: besarka ta estutu gogoá. Berak ere etzitan uruti malkoak, baña eutzi egin zion negaári. Lagun onak bezela alkañengandik alde egin gendun.

Arítzekoa de gero! Amar urte bizi izan naiz Jesulagun artean, ta iñork ere etzidan orelako negar gozorik egin erazi agur egiterakoan; ezta Aita Txomin Landak ere, zan bezelako ogi puzka izan aeren. Nork eragingo...? ta Anai Garatek; ez zakaía izan balitz; baña biguna izan ura, ama betek bezelaxe gaxoei gau ta egun laguntzen zekiena, goxua. Aren ardura, aren eramana, aren maitasuna! Iñazio Deunak, ura zan bezelako zaintsua ta kementsua izanik, ala ere gaxoentzat orelakotxe maitasuna agindurik zeukan.

Orixe zan Anai Garate'tzaz esateko nuna. Entzun det santu bat bezelaxe deun usaian il dala; ez naiz bat ere aritzen. Orelakotxeak izango aldira gaxoen ardura duten guztiak! batez ere Iñazio Deunaren Semeak.»

Ori guzia Marin del Campo'k idatzi dio Perez-Aregi Abari Anai Garate'ren omenez. Idazlari katoliko esaguna da; Izpañingietan «Chafarrote» gezur-izena darabil.





**La Guardia ikastetxeko itxura Anai Garaten garaian**







Lagun urkoari on egiteagatik bere buruari zearo uko egiteak, miñik etzion ematen Anai Garateri: lagun urkoari on egin ezkerro, arena eginda zegon. Ondo zekiten ori etxe artako bizilagunak. Ara emen ale bat.

Ikastaro baten asieran, mutiltxo bat etxetik etoñi orduko tifoide sukañak artu zuten, ta gogor artu ere. Gau baten ere etzala oeratu Anai Garate, egingo nuke, alik eta mutilari gaitzak alde egin zion arte! (Anai Zabaletaren itzak dituzu). Gauero, besteak oera zijuazten garaian, an gelditzen zan mutilaren gelan, aulki baten exerita gaxoaren alboan, geldi, aingerua bezelaxe, begirune osoz.

Bai, bai! kezka aundirik gabe sinistu dezaiokegu Anai Zabaletari an egongo zala gaxoaren alboan gau ta egun, bere buruai ajola aundirik egin gabe. Nagusiak beintzat artan zeuden; eta gaxo zaitzen ark artzen zitun lanak ikusita, bildurtu ere egin ziran, osasuna ta bizia len baño len galduko ez ote zitun. Oñen bilduñez, zeregiñ ori kendu ta beste bat eman beañean izan ziran. J. L. Bañuti Nagusiaren laguntzale zan Aita Sorondo'k esanda dakigu; Garate'ren anai Inazio ta Andresi esan zien.

Jakiña zegon ordea, jartzen zuten zeregiñean jartzen zutela, ura beti berdin izango zala: lana artuko zuela al zun aretarik aundienaz, ta al zitekean ondoenik Jainkoaren ta gizonenga-



nako maitasunik bikañenaz. Gaxozai zanean, iñor gaizki xamar zanean, Garatek ez omen zun ez jan, ez lo, ez ezer ere bere buruaren onerakorik egiten : artantxe ta artantxe, beti gaixoari, utzi gabe, gau ta egun laguntzen. Orelaxe jokatuko zun bizi osoan bere zeregiñ oroetan.

La Guardia'ko ikastetxe oretan batu zan bein betiko Jesusen Lagundiarekin ; antxe egin bai zitun azkenengo botoak 1887'gañeneko Andre Mariren Jasokunde egunean, Dagonilaren 15'an.

taian, an gelditzen zan munduaren egon, bali  
batan ezente gaxoaren alboan geldi, sargotuz  
berelax, begunne ogor.

bai, bai kerke munduñ gabe nistatu dezai-  
keu Anni Xabalerari an etxora zula gaxotuz  
alboan gau ta egun, bere buruñ ajeñ munduñ  
egin gabe. Negusiek beintat oron zauden ; eta  
gaxo xatzen etk etken xian lank ikasari, bil-  
dutu ere egia xian, omentuz ta biza ta dain  
len galdute ez ore xian. Oñen bildutez, xer-  
gñ ori senda ta beñe bat oron beñen xian  
xian. J. L. Baniñ Negusieno jantutale zan  
Ata Xorondo'k senda obigitu ; Garate'no  
orañ Xorondo ta Andoñ'no xian xian.  
Jakiñe segun oron, jantzen xian xantutale  
jantzen xantale, an beti beñen ixango xale, la-  
na autoko xaleñ el xian xantale munduñ, ta  
el xitekon oron'nek jantutale ta gaxotuz-



## DEUSTO'N

1886'gañen urtean iriki zan lenengo aldiz Deusto'ko ikastetxea; andik bi urtera, 1888'gko. udabeñian, or zan anai Garate. Etoñi baño len bere ekandunen (birtuteen) usai gozoak aúre artu zion. Ara zer dion Zuriáñain'dar Pedrok, ordurako Deusto'n bizi zanak: «La Guarditik etoñi zanean omen aundia zekañen; guztiak langile poñokatutzat, ta apaltasunezko ta deuntasunezko eredutzat jotzen zuten. Ta etzan ez gezuía: emen eriotzaraño igaro ditun urte piñloan izen ori etzaio gutxitu».

Beñogei ta bat urte bizi izan da Garate Deusto'ko Unibersidadean, ta oroetan atezaitzea izan da asiera asieratik aren egitekoa; egia, 1889-tik sakristauaren laguntzale ere beti izan da, La Guardian izan zan bezelaxe; baña egikizun nagusiena bestea izan du, atezaitzea.

Ogei ta amaika urte zitun lan oñi ekin zionean; ñl arte, eten gabe, ortan iraun du. Birtarte luze oñetan, garbi asko azaldu dira aren ekandun, birtute, zorogañiak. Uñeratu zazkion guztiak deuntasunaren usai gozoa artu diote. Amaika aldiz gelditu ziran añituta, aren otxantasan ta apaltasunari begira. Maitatu, beñiz, arekin zebiltzan guztiak maite zuten, ta ez gutxi gero.



Deusto bezelako etxe aundi batean atezaiak ditun zeregiñak, an bizi ez danak, edo an izan az danak, ezin erex somatu dezazke, ezta urik eman ere. Ikusi dituanak badaki ordea danik eta sendoena izanda ere lertzeko ta txorabiatzeko berak dirala naiko: Garate etzuten txorabiatu, santutu egin zuten.

An ainbat sartu-erten! Jesulagunak, ikasleak, mutilak, ikasleen gurasoak, eskaleak... emengo jauna, ango andrea: bati deitu, besteari erantzun, aruzkoari au edo bestea agindu: urliaren esanak, bestearen enkarguak; orain atean, gero telefonoan, beti gañean, barukoen eta kanpokoen moñoi, goizetik aratsera, ta gaur, eta biar, eta etzi, jairik gabe, atsedenenaren aztaranik ere gabe. Ta orela urte bat, eta bi... berogei ta bat urte, iltzeko egun arte, il baño ordutxu batzuk lenagoraño. Ta beti: pañez-pañez, iñungo iñetarik gabe, neguko otzetan eta udarako beroetan, arera ona guztiei egiñaz, bekozkorik iñori jañi gabe ta ala ere eginbeañak eta esanbeañak, onez, baña garbi esanaz. Guztiak pozik berakin: etxekoak ta atera datozenak: zuri ta zure gauzai, beste zeregiñik ez balu bezela, ardura artuaz. Ta ori, dan ori, mundu onetako ezertxoren itxaropenik gabe... beti antxe, atezaitzen guztien mirabe eta moñoi izango zala jakin-da... baña Jainkoari begira, Jainkoaren maitasunez, ango zarata artean



biotza pake deunean, beti otoitzean Jaunari jasota.

Ora or Anai Garatek bizitza osoan egin zu-  
na: munduaren begietan ezer aundirik ez, bear  
bada. Jainkoaren begietan asko, noski: ate-  
zaitzea ta ortan zitun lan nekeak goratu, deun-  
du, santutu. Atezai izan zan, baña ez nola-  
naikoa: Jesulagun atezaia, ta Jesulagun atezai  
*santua*. Bere tokian, bere neuñian Jesulagun  
santu izan zan.



## BERE BIOTZ BARNIA

Orain arte Anai Garate'ren onbide edo birtuteak guziak batera, sailean ikusi ditugu. O'rek berak baka'rik, nora'niko gizon zintzoa izan zan somatuerazi digu. Ez da aski ordea. Orain onbide oiek berak, banaka banaka ikusi bear ditugu, bakoitza bere bikaintasun ta margo berezian. Ez de gauza e'rexa: danik eta ondoena nik zuei orain azalduta ere, begiz ezagutu zenutenentzat gauza i'la ta i'luna izango da.

## JESU-LAGUNA

Lekaidearen (erligiosoaren) deuntasuna nolako izan bear dan, ta nundik nora iritxi bear dan, lekaide bakoitzaren Arauak adirazten dute. Deuntasuna, auxe besterik ez bai da, Jainkoaren naia beti ta nun nai egitea. Jainkoaren nai ori, be'riz, lekaideari bere Arauak aditzera ematen diote; o'retarako onetsi ta onzat eman bai ditu Eleiz Ama deunak lakaidietako Arauak.

O'regatik, Arauak zintzo, beti, eten gabe bete dituan erligiosoak deuntasuna iritxi duala bildur gabe esan dezakegu. Ta ez dira gutxi, beste ezer gabe, aldaretara igo diranak.

«Gure ustez, (Perez-A'regi Abaren itzak di-



tuzu) Anai Garate Jesus'en Lagundi'ko anai laguntzaleen Arauak betetzen eredu izan da. Luzaroan bizi izan gera berarekin, ta iñoiz ere ez degu ikusi Araurik txikiena ere austen; egite bat ere ez genion somatu bere bizibideari ondo etzetorkionik. Ondo, bai orixe, aretxek betetzen zitun, ba, ondo bete beařak. Loxintxaren aztařanik gabe esan bear, Anai Garate Araudi bizi bizia zala: alegia, Jesus'en Lagundiko Araudian diranak, arengan bizi ikusten genituala. Ořegatik aren argazkirik (eřetraturik) onena Jesusen Lagundiko Arauetatik atera bear; auek esaten dutena egiřnaz bizi izan zalako beti».

Arentzat ludi onetan eginkizunik bat besterik etzan: deuntasunik gorenena ta aundiena iritxi, bere burua al zun guztian ta zezaken geiena ilduratuaz. Ořetarako, aukera zuanean, lanik neketsuenak ta iñork nai izaten ez dituenak beretzat oi zitun; ořegatik beartasunaren maitale izan zan beti; maitasun ori bere jan ta jantzi ta oe ta gelan ederki asko ageri zan. Aretxek artu zun biotz gogoan Aita Iñazio Deunak Lagundi'koei agintzen ziena: «bakoitzak bere buruari etxean diran gauzarik kaxkařenak opa bezazkio, bere burua garaitu ta zerurako geiago ta geiago lortzeko».

Garcia Heřero Abak auxe bera esaten du, ta ez da edonor; urte askotan aren bizi lagun izan dana baño. Ba-onek dio gutxi ezagutu dituala



Garatek bezain ondo lñazio Deunaren esan ori bete dituanik.

Baña iñoren esanak baño Garate beraren egiteak indar geiago dute. Deustoko Ikastetxe ederean arek bizilekutzat ta logelatzat ainbat urtean izan dun txoko ilun, zistrin, xastaía...! ta ala ere antxe nai, antxe pozik. lñork andik alde egiteko esan balio, miñ izango zitzaion; beartsu bai zan ta beartsu bizi nai izan zun.

«Maian ere txaíena beretzat izan oi zun. Bein baño geiagotan, neuk ere ikusi nun (Perez-Aíegi Aba ari da) txaíena artzen. Aren inguruan jatorduetan beti izan oi zirenak geiagotan ikusi zuten: guztiak aitortzen dute kaxkaíena beretzat artu oi zuala, baño ori iñori aditzera eman gabe; bíla ibíli gabe, eskuratu balitzaio bezela, txaíenari eldu. Oíregatik aren gain etzeudenak, askotan, ez ta antzik eman ere.»

Amairik gabe jardun bearko genduke Lagundiko Arauak bata bestearen ondoren aitatu bear bagenitu; ala ere batzuk beintzat gogora ekaíi bearko ditugu, Anai Garatek maiteenak zituanetatik bat edo beste. Ta lenik aitatu dezagun, gizon ura bere garaian etxeko guztiak egin bear izaten zituzten eginkizunetara nola joan oi zan; iñoiz ere utsik egin gabe, érexa bai zitzaion ere ez joatea, ainbeste lan bear bere gaiñ zeuzkanezkero. Oso bear beaíezko



lan bereziren bat izan bearko zun, guztiak zeuden eginkizunean ez egoteko.

la ontan baño ere zintzoago izan zan, baldin baliteke, ixiltasunean. Egunoroko atsedean aldiak kendu ezkerro, inork etzuen ura ikusi izketan bearik gabe edo esan oi danez «denbora pasa». Etzun, ba, aitzaki makala ortarako, nai izan balu, besteen egontokietara edo gelatara egin bear izaten zitun sartu ertenetan; ta ez gutxi bider gero oni deitu edo ari au edo beste agindu bear zionean. Ba arek ez: esan bear zuna esan eta kiño; ortik auferako beriketarik ez.

Oraindik arigariago da ate ondoan ainbeste sartu ertenak ixiltasunari ez eragozte; ba an ere al zun guztian ixilik egoten zan. Ori bai, inori bear zanik etzion ukatuko; ta inoiz ere etzun inor ere minberatuko, bere ixiltasuna zalata: zetozten guztiai zor zitzaien afera ta gañerakoak egingo zizkien, baña osterantzean beti ixilik.

Bada beste gauza bat. Inazio Deunak se meetan nai zukeana, ta añ ederki Araudietan agindu zuana: eratasuna, begirunea, latinez «modestia» deritzana. Ortan ere arigaria izan da Garate. Bazirudiñ bere izate dana begirune ta eratasun ta apaltasunez inguraturik zula. Amaika aldiz arituta berari begira egon giñan. Begiak geienetan bera begira izan oi zitun; uferatzen zizazkionei gozoro gozoro agur egiteko jasoko zizkien; gero berialaxe atzera bera



begira. Beñere etzizkion begiak iñori luzaroan ezartzen, ezta bere etxeko anaiei ere.

Aren arpegiak beñiz nik ez dakit zer ezin esan alako barne-alaitasun ta pake adierazten zun. Ari zan gauza guztietan euki oi zun egoerak, beti apaltasuna agertzen zun, ta ikusten zutenak Jainkoarengana zeramatzin. Aita Zurbanok esan oi du Garatek zun gauzarik eratsuenetako bat ibilera zuela; «iñoiz ez det ikusi, esaten du, antxintxika alako eratasun, modestiaz».

Gai au bukatzeko Aita Iñaziok Lagundiko anai Laguntzañeentzat, Araundian, jartzen ditun itz batzuk: «Añetarik audienaz baruko garbitasunari burua iduki bezate. Almen guztiaz Lagundiko maña oni dagozkion birtuteak beragantzen alegindu bitez; oiek gabe Jaunak egin dien deiari bear bezela erantzuterik ez dago-ta. Birtute oiek auetxek dira: oneraspena (debozioa), baruko pakea, bestearekiko otxantasuna, onbidearen zaletasuna, deuntasunaren naia... Itz batean, etxekoentzat eta kanpokoentzat onerako bide izan bitez.»

Atezaietzaz beste bein ofela mintzatzen da: «Guztientzat onerako lagun izan bedi, eta guziak poztu bitza bere jañduera, erabide, zerruko jañdun ta itz deunez».

Badirudi Iñazio Deuna Anai Garateri begira egon zala itzok idaztean: añ ederki itz gutxi-



tan atera digu Garateren irudia. Esan bezate ezperen Deustoko atezaia ezagutu zuten guztiak.

## BETI OTOITZEAN

Loyolako Iñazio Deunak bere Lagundiko anai laguntzaletan aurreneko ikusi nai zuen gauza auxe zan, debozioa, oneraspena; ta beaien ezagugaritzat oneraspen ori nai zun. Ez ordea nolanaiko oneraspena, Jainkoarekin maitasun sugařetan alkartzen duna baizik.

Ori dun gizonak, ari dan lan guztietan Jainkoagan dauzka biotzbegiak; Jainkoaren ondoren dabil zeregin guztietan; lana beřiz, ařeta osoz al diteken ederkiena egiten du; onetxen bila bai dabil beti, Jainkoaren mirabe nola izango, ta Jainkoari nola atsegin emango. Ta ori dana Jainkoa guztiz ona dalako ta asko maite izan gaitualako.

Garateren bizitza ořelaxe joan zan bada: Jainkoarekin bařen bařenetik bat eginda; ludiko gauzetatik uruti, otoitzean ta eleizkizunetan biotza irakiten, noiz nai zeruko gauzetaz mintzaten. Egia, etzan emen bizi; aren biotza beti goian zegon; lanean ari ez bazan, otoitzean jardutzen zun: obeto esateko, beti otoitzean zegon; aren lanak eta eginkizunak berak ere, otoitz ziran eta. Unexto bat ba'zun



atsedenarako, jakiñakoa izaten zan aren atsedena, otoitza, Jainko izketa.


Ořetarako, ate-ondoko gelatxo baten otoi leku bat egin zun. An jañi zitun Ama Birgiña'ren ta Jose Deunaren ta Alfonso Deunaren iduriak; beti loraz apainduta euki oi zitun. Otoi leku onetara txokoratzen omen zan, esaten du Anai Onaindiak, beste guztiak jolasean edo atsedenean zeudenean; antxe, belauniko edo zutik, askotan ikusten omen zuten ařenetan. Arutz eta onutz, ate ta leioak izten zebilenean ere, sařitan ikusten omen zuten otoitzean, entzuteko eran.

Deustoko etxeak patiñ edo esaten dituten ořelako asko ditu; oien erdian, Jesusen biotzaren eta Ama Birgiñaren iduriak daude loraz inguraturik. Irudi oien ondora lanera joaten zan guztian ere, lenengo irudiari begira geldi geldi egon oi zan, zerbait aien arpegian ikusiko balu edo... otoitzean ari zan.

Bere ate ondoko laguntzañe zan mořoiarekin askotan otoitzean jardun oi zun, eřosarioa edo esaten: eguneroko gauza zan, ořegatik iñor etzan ařitzen. Entzun orain, zer esaten dun azkenengoz izan zun mořoi txikiak:

«Egunero ařatsaldetan agurtza deuna esaten genun; askotan asi baño lenago esan oi zidan: oitu zaitetz biotzez, geldiro eřezatzen, Jainkoarekin itz egiten zaudela oroitu-ta.» Be-





Deustoko, (Bilbao) Ikastetxe Nagusia







rak ez ezik, besteak ere otoitz egitea, ta ondo egitea atsegin zitzaion.

Oek denak, guztiok ikusten genitunak ziran. Bere artan ark Jainkoarekin zeuzkan artu emanak, eta bakañik zegonean izaten zitun geienenak, ixkutuan gelditu dira; al zuena estaltzen ibili zan eta.

Ala ere, noizen bein atz eman zuten, berak bakañik zegola uste zuanean. Ara zer dion Anai Artetak: «Egunero, goizean goiz jan to-kira juañ oi zan Anai Garate: auñeko aparitan gelditu ziran ogi ondañak eta, atera zetozkion beartsuentzat eramateko asmoz. Ordu aietan, toki artan bakañik zegola uste zun nonbait; geienetan oñela izaten zan eta. Baña egun baten, ni ordu artan an inguruko gela baten nengon, gabeko etxe zai bai nitzan, ta ez dakit zer zala ta, ara joanda. Andik ikusi nun Anai Garate jantoki erdi erdian belauniko, besoak zabalik, añeta guztiz otoitzean orman zegon Kristoren azken apariari begiak kentzeke. Ori ikustean nik ixil ixilik, oartu etzedin, alde egin nun.»

Beste bein, goizeko lauretan eleizako sakristi baster baten belauniko añenetan arkitu zuten. Gabezaiak askotan bilatzen zuten ordu aietan arutz eta onutz zebilela.

Zer deritzazu, irakurle? Zer izango da oñe-



lako otoitzean gau ta egun dagonaren bizitza? Jainkoaren maitasunean sua darion karobi bizia noski. Su oren indańik biziena ez degu aitatu, ordea, oraindik. Ori Aldareko Sakramentu guztiz Deunaren eraspenna izan zan; Parzhan'go Konrado Donearentzat izan zan bezelaxe.



## ALDARE AURREAN

Aldareko Sakramentu guztiz deunari izan zion beti, bizi guztian, eraspenik aundiena Anai Garatek.

Deustoko etxe zabalean, aldareko Jauna eliz baten baño geiagotan egon oi zan.

Guztietan, Garatek egiten zitun sartu erten gozoak, garbi adierazten zuten bere joera.

Bere egin beańak zirala-ta, arutz eta onutz aundiak sańi egin beańean izaten zan egunaren barne etxe guztian zeań; ta jakińa, askotan igaro beań, Jauna Sakramentu santuan zegon eleizatxoen auńetik. Bada, etzan ińoiz igaroko gure atezaia Jaunari agur egitera sartzeke.

Presaka bazebilen, etzan luzaroan egongo, bańa sartu bai oritxe; antxe ate ondoan geldituko zan apal apal, belauniko, unetxo batez; gero muń egingo zion luńari, eta axkar-axkar juango zan bere lanetara.

Ikustaldirik geienak eleizan egiten zitun, ataritik sańera dun eleizan; bere lan-toki ondoan bai zun ta igo beańik ere ez.

Entzun ateko mońoiari:

«Atealdea bare zegonean, Jaunari ikustaldia egitera bialtzen nińun; bera ere an izaten



zan sañi, ta ertetzerakoan beti luñari muñ egiten zion. Egun batzuetan agurtza elkarékin esan da gero, eleizara joaten zan, ordu erditik gora egongo zala esanaz; bat bateko zerbait bazan aditzera bereala emateko.»

Egunero Sakramentu Deunari egiten zizkion ikustaldiak ainbeste izan añen, ala ere igande ta jai egunetan geiagotan joaten zan.

Jaunarekin sañi ta luzaro egoteak asko esan nai du, baña aren eleizako ego-erak geiago añitzen zun oraindik. Uraxe bai zegola Jaunaren añean! Aretxek bai nabaitu Jaingoikoaren itzala aldarean! Berari begiratzea naikoa zan edonoren siñismena pizteko.

Urteetan Aita Zurbanori meza erasan zion, eta Jauna ere aren eskuetatik artzen zun geienetan. Ondo daki beraz Aita Zurbanok Garateren beñi. Entzun ba zer dion:

«Anai Garateren otxantasun ta apaltasuna, Jaunarekin ari zanean, ezin esan añaakoa zan; danik eta otzenari ere berari begiratzeak bakarik ez dakit zer biozkada ematen zion. Guztientzat eredu da Jaunakin gaudenerako. Aldareko Sakramentuari eraspén bizia izan zion beti: arek egiten zizkion aña ikustaldik ala diote. Etziran luzeak izango, astirik ere etzuan asko izaten eta, baña beroak ziran noski, azalétik ikusten genuenez beinzat. Jauna añtzen zuenean, nik uste det siñisgabekorik aundienak



ere begiratu balio, nai ta nai ez aitortu bearko zuela: «onek, ezin ukatu, Jainkoa artu dik bere bañenean.»

Perez Añegi Abak bere begiz bein baño geiagotan ikusi zuna ere esango dizutet. «Goi-zean goiz juan oi nintzan gure ikasleen eleiza-txora, Jaunari eguneko eginkizunen eskeintza egitera. Sañitan, garai artan izaten zan Garate ere Sakramentuari ikustaldi luze bat egitera joanda. Bañuan nengola sartzen bazan, etzan ezer berezirik gertatzen; baña bera bakañik zegola sartzen bagiñan, beti geldi eziñik biñatzen gendun. Atzenerako usaia artu nion, ta zeletan asi nitzan.

Anka punñeka uñeratu nintzan egun batzuetan kapñlara ta ixilik atea iriki ta... nik uste nuena egi atera zan: Anai Garate bakañik zegolakoan, auzpez luñean zegon, Kristo Oliamendiko baratzan bezelaxe, burua luñean zuala. Eztul bat edo egin nun, ta oartu zanean an nengola, berialaxe jaiki zan, baña berandutxo.

Beste batzuetan ere era berean arkitu nun. Beiñ etzan oartu iñor sartu zanik, beraren ondoan belauniko jañi nitzan arte. Orduan, bere burua estali naiez, zerbait galdu balitzaio bezela, biñasi zan, ta bereala erten zan eleizatik. Geroztik ez nion geiago oñelako gaiztake-rik egin nai izan, ta pakean utzi nion.

Ni ez ezik, beste batzuek ere aren ondo-



ren ibili ziran; ta nik somatu niona besteak ere oartu zioten.

Anai Zuriarainek begira zeñ esaten digun: «Askotan ikusi nun Anai Garate eleizako atzeko ateetan, luñean auzpez etzanda; ni aldean negola oartu orduko, jaikitzen zan, baña ezin iskutatu naita ere.»



## KRISTOREN MAITALE

Beti izan zun gogoko Anai Garatek Jaunarentzako ziran gauzetan pozik lan egitea. Ori bera arenganako zun zaletasun biziaren agerkun garbia da. Elizarako gauza onak ta al ziran ederenak, eta garbienak nai izaten zitun beti. Ortan saiatzen zan gogotik. Maiz ikusten zuten bere lantokian kandelero ta bandeja ta orelako eleizako tresnak garbitzen; baita lora-sorta ederak aldarerako gertutzen ere.

Baña urtean baziran aldi batzuk besteetan baño geyago oretan alegintzen zana. Oietatik bat inauteriak izan oi ziran. Oitura izan bai zan Deuston, egun oietako baten aldareko Sakramentu Deunarekin ibil deuna egitea, Unibersidadeko sail bañuan. Eleizkizun oretako lanik geienak Garateren gain izaten omen ziran; alegia aldareak eta Jaunak igaro bear zuan bide guztia apaintzen bera ibili oi zan.

Oretarako aurretik asten omen zan etxean ta kanpoan zezazkean apaingariak bereganatzen. Etzan ba etxetik ertetzeko zale; urtean bi edo iru aldiz aterako zan geienaz; baño aldi onetan urtero ateratzen omen zan Kareaga'tar Pax andrearen etxera, inauteriko ibildeunera-ko bear ziranak ekartzera. Urteetan lagundu



zian ikustaldi onetan Urzelai Anaiak; bereak dituzu itz ok:

«Urte askotan joan nintzan Anai Garaterekin Kareaga andrearen etxera; pozik ematen bai zizkion andre onek ibildeunerako bear ziztun apaingariak. Itzal ta poz aundiz artzen zuten etxe artan gure Anai Garate. Antxe egoten giñan unetxo baten Jainko gauzaz izketan; gero bereala etxeko andreak jartzen zizkigun begien aurrean zitun gauzarik onenak, guk aukeratzeko. Garatek artzen zitun nai zituanak, eta itz gutxitan agur egiten zion andre on ari.»

Garateren poza, ibil deuna bear bezin apain ta ederki egiten zanean...!

Aste Santuan ere etzan gutxi agertzen aren Jaunaganako maitasuna, batez ere Ostegun Gurenez. Bazirudin eguzki azpian etzala arentzako egun aietan beste gauzarik Ostegun Gureneko aldarea baizik; ara xuzentzen zitun bere gogo-asmoak aurreko egunetatik asita.

Egun oretan beñiz sartu ta erten ibiltzen zan eleizan, al zuan geiena ikustaldiak geituaz.

«Gaba, nere ustez (Perez-Añegi Aba ari zaizu), oso osorik Sakramentu Deunaren aurrean otoitzen igarotzen zun, eleizako bazteñen baten kuxkur kuxkur eginda, aldareari begira, irikitzen. Ez da nere ustea bakañik; Emilio Martinez Jauna, Unibersidadearen asieratik



orain arte musika-irakasle, ta Laguardia ezkerroztik Garateren lagun izan zanak esaten du, an egon zan bitartean beintzat, Ostegun Guren gabean etzala iñoiz oerutzen. Neuk dakit beñiz guztiak oeratzera joan ta gero an lagatzen nuela Jaunaren aúrean; anai laguntzaleak esanda dakit, ordu batetik ordu bietara gaubela egiteko bera oi zala izentatua; goizean goiz beñiz an ikusten gendun beñiro bere tokian edo lanean...»

Egueñietarako aur bat baño ere pozikago ibiltzen zan. Bere zoramen guztia Jesusen jaiotzari buruz izaten zun. Ate ondoko txoko baten berak bakañik jartzen zun Jesusen jaiotza, ta edeña ala ere, ta txukun. Jaiotza ortan ipintzeko aúreko iñetatik asi ta, landara polit batzuk azten zitun, estalpetxo aúrean beaien lora ta ostroz apain emateko. Ematen zizkioten gauza guztiak pozik artzen zitun oñetarako: iduri txikiak, etxetxoak ta baita txori biziak ere karioletan, berak zionez, soñu gozoz Jesus aurtxoa onetsi zezaten.

Auzoko oste aundia etortzen zan egun oietan Jesusen jaiotza ikustera; an egon oi zan pozik ala ere gure atezai ona, zetoztenai on egiten ziela uste zualako.



## AMA BIRGIÑAREN BABESEAN

Deun guztiak izan dira Andre Mariaren jaiera aundikoak. Nai ta nai ez, izan bear gure Anai Garate ere aren seme kutuna; nai ta nai ez, azaldu bear bere bizitzan eraspen gozo onen ikuí eta ezagugañiak.

Mañorkako atezai Jesulagun Alonso Rodriguez Deuna eredutzat artuta zun bizi osorako, ta baita Amarenganako zaletasun onetan ere. Oregatik, uraxe bezela gure Anai Prantzizko ere esku-lanetan ari etzanean, eósario deuna eskuan zuala, ibili oi zan. Orela eskuan eósarioa zuala ikusten zutenean, Aita batek esan oi omen zun: «Ikusten aldezute? bigaíren San Alonso Rodrigez degu ori.»

Egunaren buruan zenbat aldiz Andre Mariarengana biotza jasotzen ote zuan! Lanean ari zan mai gañean, Andra Mariaren iduritxo bat zun: amaika aldiz ikusi zuten maitasunez, ez-tiki, ari begira. Beste ainbat egin oi zun ama Birgiñaren irudien auéetik igarotzen zan guztitan.

Egun baten andra batzuk aítuta ziran Anai Garatek zeuzkan landare batzuei begira. Galdetu zioten :

«Baña, Anai Garate, zer egiten diezu landara oiei orelako edeí ta aundiek azteko?»



«Zer egingo diet ba?, ura bota, bear duten guztian», erantzun zien.

«Guk ere botatzen diegu ba, baña ez dira ořela azten...»

«Ara ba; ura botatako guztian, agur Mari bat eřezatzen det.»

Beti Agur Mari! edozer gauza dala-ta, Ama Birgiñarengana!

Bere laneko mai gañean zeuzkan liburutxoen artean, antxe zun Ama Birjiñaren «Piissima» deritzana; etzun egun bat ere uzten Piissima ori, egunean egunekoa irakuři gabe. Goizean lenengoz bere esku zun tartea ořetarako izan oi zun.

Aratsaldero agurtza mořoi laguntzalearekin batera, esaten zun.

«Jaietan ordea, (mořoiaren itzak dira) goizean goizetik esaten genun agurtz ori; aratsaldean, beste mořoi bat etortzen bai zan nere ordez, ta arekin beste bat esaten zun. Igande baten, mořoi guztiak Begoñara joanak ziran, ta nere ordez atezai gelditu zanak aseře antzean esan zion:

«Au ere ba da ba! guziak Begoñara, ta ni emen gelditu bear!»

«Etzaitez estutu, esan zion Anai Garatek, emenditxek otoi egingo diogu, ta Begoñara joanda bezelatxe, lagunduko digu.»

Jai aundietan: Jesusen Biotz eguna ta Zor-



tzez garbiko eguna ta Jose deuna... ta orelakoe-  
tan bere goizeko lenengo eginkizuna auxe iza-  
ten zun, etxeko eleiz guztietako Ama Birjiñai  
argiak piztu, alegia. Maiatzeko loretarako au-  
retik asten zan lorak eta landarak gertutzen.  
Nairik bizien biziena izaten zun zeruko Amaren  
aldarea apain ikustea.

Auek ziran azalatik ageri zitzazkion bañuko  
oneraspenaren txinpartak. Jainkoarekin orela bat  
eginda bizi zana ezin ba zerutaía ez izan, ezin  
emen beko uskerietan bizi. Oregatik beti zeruko  
gauzetan zegon, beti goikoetzaz ta Jaunatzaz  
izketan ari zan.

Etzun ba beta txaría, nai izan balu, Deustoko  
atarian mundu onetako gauzak jakin ta gai oie-  
tzaz itz egiteko, an aña sartu erten ta gora be-  
raz; baña ari emengo gauzetaz ardura gutxi  
zitzaion. Zerukoetan zegon beti, ta noiz nai,  
burua gauz oietzaz gañezka zeukanenez, izketan,  
tantaka zeruko asmoak ta zeruko oldozpenak  
ateratzen zitzazkion. Ia oartu gabe ondoan zitun  
guztiak, zerura jasotzen zitun.



## LAGUN URKOAREN MAITALE

Gezurti gelditzeko bildurik gabe esan bear, Anai Garateren deuntasunaren pitxirik edere-na auxe izan zala; urkoenganako maitasuna, Jainkoaren maitasun aundian érotuta zegon; Jesukristorenganako maitasunean sustraituta. Oregatik, Jesukristok agindu zigun alkarénganako kristau maitasunak ditun apaingarí guztiak ere izan bear.

Kristogan érotzen dan maitasuna, guztientzako izan bear da: Garateren maitasuna, bat ere kendu gabe, gizon guztiengana zabaltzen zan; guzientzat zan maitasun ura, aberats, beartsu, etxeko, auzoko... guztientzat; ta danentzat berdin, batari, besteari bezelaxe, on egiñaz; bata, bestea bezelaxe, maitatuaz.

Maitasuna itzetan azaltzen omen da, baña egiñetan geiago eta obekiago. Garatek era bietara azaltzen zun, baña batez ere lagun urkoagatik lan-nekeak ixilik, pozik eramana. Egi egitan, aren bizi osoa Jainkoagatik lagun urkoaren maitasunean urtu zan.

### *Beartsuekin.*

Esan degu Anai Garateren maitasuna guztientzat berdiña zala; bildur naiz, ordea, ez-



beaŕen bat esan ote degun; bere aŕtuak ere bazitun eta: beartsuak ziran aiek.

Aretzek, beartsuenzat begi-tarte biguñā! Eskera zijozten guztiai zer edo zer ematen zien, bañā ematen zuana baño geiagokoa zan aren emateko era. Beti eukitzen zitun ate ondoan txanponak oŕetarako, baita ogi zati pīlo galantak ere. Ori beartsu guztiekin.

Bazueuzkan ordea beste lau edo bost gizagaxo eŕukaŕiagoak. Oiei auŕera sartzeko agintzen zien; exeri erazten zien, oŕetarako toki bereziena. Bitartean bera sukaldera joaten zan izpaŕingi edo batekin ia aientzat zerbait obeago, okelarik edo, aŕairik edo, sukaldariak ote zeukan.

Anai Egiguren sukaldariak esanda dakigu, Anai Garatek sukaldean sartu erten asko egiten zituela egunaren baŕuan, beti landeŕentzako zerbaiten biĀa. Berak baimena emanda zeukala nai zuena eramateko, bañā ezertxo ere etzuala ateratzen, berari esan gabe.

Askotan uŕeratzen omen zitzaion esanaz: «Begira, beartsu ori gaixo dago, ta oŕelako janaria obe izango litzaioke; al badin badezu...» Nola ukatuko zioten ba ezer, oŕela eskatzen dun gizonari! Orduan ba bilduko zuan izpaŕingian aragi edo aŕai puzkaren bat, ta joango zan pozik bere landeŕengana.

Deustoko nagusi Sagarminaga Abak esana



degu beste au: Unibersidade atariko lore-baratzan bai omen zitun Garatek landaratxo batzuk, senda-landarak, gaixo beartsuentzako lantzen zituanak. Asko etortzen omen zitzaizkion landara oien ondoren, gaitz bat edo beste zutelata.

Legorteetan asko etoñi oi ziran Unibersidadera ontziak urez betetzera. Amaika jun etoñi egin zun gure atezaiak etxe buñuko ituñi batera; askotan lanez leporaño egon añen, etzuen bekozko aundirik jañiko; beste zeregiñik ez balu bezelaxe, pañez pañez, eskatzen ziotena egingo zun.

### *Etxekoekin.*

Beartsuekin oñela; etxekoekin?

Aretxek maite zitun egi egitan Jainkoak anaitzat eman zizkiñon lagunak! Euki izan zien maitasun ori bear bezela azaltzen ba det ez naiz osoro makala izango; ondo ez bada ere, nola bait esaten aleginduko naiz beintzat.

Lenago ere esanik degu Deustoko atezaiak, Mañorkako Jesulagunen atezai Alfonso Rodriguez Deuna, eredu ta ispiñutzat artu zuela. Ez dakit Anai Garatek irakuñiko ote zitun, noiz edo noiz, bere Deun maite ark, urkoaren maitasunatzaz idatzita utzi zituanak; baña bete, bai oritxe, ezertan ere utsik egiteke bete zitun. Ona emen Alfonso Deunaren itzak.



«Guztientzat apala izango zera, ondo itz egi-  
ña, goxoa, otxana, paketsua, erukiz betea. Da-  
nai lagunduko diezu atsekabe ta lanetan; zere  
buruarentzat bakañik izango zera gogoña. Guz-  
tiei bigun egingo diezu; zure buruari gogor.  
Zeretzat gauzarik kaxkañenak aukeratuko di-  
tuzu; zure anaiarentzat gauzarik onenak. Bes-  
teen alde beti egingo dezuz; zeure buruaren  
aurka azalduko zera, ordea, alde guztietan; ja-  
kin bear bai dezuz, luñean danik txañena ta oke-  
ñena zerala. Danai on egingo diezu; zere buruari  
bakañik gaitz, aldezun guztia zure aundi-  
naia ezteko. Guziak maite bear dituzuz; zeure  
buruari bakañik goñoto izango diozuz, ez bai zera  
besteren gauza, Jaunari egin dizkiozun irañaga-  
tik. Guztiei arpegi alaiz, begitarte ona egingo  
diezuz; zeure buruari, ordea, goñoto aundiz be-  
gira zaiozuz. Zure biotzean guzien maitale izan  
zaitez; lagun dituzunak ontzat iduki itzazuz; zeu-  
re burua ordea gaiztotzat.»

Oña or Alfonso Deunak beretzat nai zuen  
urkoen maitasuna. Oña or Garatek lortu zuana.  
Oñelakotxea izan zan etxeakoakin. Anai guztiak  
maitasunez biotzean itxasita, zeramazkin. Aren-  
tzat guztiak aundi ziran, guziak nagusitzat  
zeuzkan. Oñegatik iñoiz etzan aren ezpa-  
ñetan mañ-mañik, gutxiagorik ere. Itz bat bere  
etzan ateratzen aren aotik urutitik norbaiteri  
miñ emango zionik. Aren aotan iñor etzan txa-



ía ; esan bear, iñorgan etzuela eúrrik arkitzen, edo beintzat etzuela arkitu nai.

Noizbaiten bere egin bearak betetzeko, iñoren utsegiten bat zalatu bear bazun, aretxek bai neuriz ta itzalez azaldu, al zuena gutxituaz, ta ez dakit nik zer ezti ta goxotasun itzetan jariaz. Azkeneko au urte askotan nagusi-ordeko izan zun Aita Zurbanok esana degu.

Besteen utsegiteak gutxitzen ta xuritzen zekienak, bere gain lagunena botatzen bazekien. Ara ale bat :

Egun batean asare zebilén Aita Nagusi-ordekoa beti itxita egon oi zan ate bat, gau guztian zabalik gelditu zalako. Jakin zun Anai Garatek, ta besteen alde ateratzea, apal apal joan zitzaion : «Ba, Aita, oker ori nere uts egitea izan da ; barkatu!» Orelakoak noiz nai.

Iñorgatik gaizkirik ez esan, iñori kalterik ez egin, ori utsa zan Garateren urko-maitasunarentzat. Aren eztaiak aldamenekoari on egiten, laguntzen, ez bearak arintzen izaten ziran. Ortarako zenbat eta neke geiago berak artu bear, ainbat eta naiago izaten zun.

Entzun gai onetan Perez Aregi Abari :

«Etxekoak ondo ikasita genun noiz nai guri laguntzeko zegola atezaia ; muñuxkaren bildurik gabe joan giñakela au ta ori eskatzera, al baldin bazun ziur emango zigulako. Nik, egia esateko, beñere ez nion entzun ezetzik, edo ezin zua-



nik, edo astirik etzuanik, edo... aitzakirik. Besterik ez bazun, arpegi biguñā jaříko zizun beintzat, ta írípáre bat atsegiñagoa!... al bazun baietz, pozik, bañā etzegola bere eskuan, adieraziaz.

Askotan zuk berari ezer esan baño lenago, bera asiko zan zuk gogoan zenuna egiten; zeren beara zenun ikusteko, begi azkarekoa bai zan.»

Laguardiako ikaste-etxean bizi izan zan Aba batek esan du, Anai Garate, an egon zan bitartean, gelaz-gela ibiltzen zala apaizai ta Jesu-Lagun irakasleei buruko koroí txikia egiten. Miñā aldiz eřexago zitzaion ba, oi danez, guztiak toki batera ordu baten ekaří erazi, ta an koroia egitea; bañā ez! ikusi zun erosoago izango zitzaIELA beste ori, ta iñori atsegiñ ematearen, bere lanagatik ajolarik ez.

Nor bere buruarenzat gogořa danak, batzuetan, besteak ere bere neuríz artu oi ditu; bear baño gogortxoago, alegia. Etzun ořelako aundirik gure gizonak: al zun guztian lagunēn bititza arintzen ibiltzen zan. Entzun Aita Zurbano'ri:

«Anai Garate gizon santua zan, bañā aragizkoa; gizonēn beří ondo zekiena. Ořegatik, bear zan guztietan, joaten zan nagusiengana, Anai Laguntzaleen buru zanez, jaiēn bat, edo opoř eguna, edo au ta ori... bear zanean, bear zana



eskatzera; bai ta iritxi ere nagusiengandik, eskatzen ere bazekien da».

Etxean bizi ziranakin oñela aritzen zen; oraindik areago, erbestekoren bat etxera zetoñenean, edo etxekoren bat erbestetik beñiro etxeratzen zanean. Urutietara joateko gogoak ere ematen omen zun, etxerakoan alako ongi-etoñi alai ta begitarte biguñā arkitzeko.

«Baten bat zetoñela esaten ziotenean, (Onandia Anaia ari da), lenengo gauza au izaten zun; ura bizi bear zan gela nola zegoan ikusi. Beriala garbitu eraziko zun, ta oñetarako iñor ez bazegon, berak garbitu; oea ere berak egingo zun. Gero zapi batekin autsa kentzen ibiliko zan. Maiz entzun genion iñoren gogokoa etzala, etxera etoñi, ta gelarik ez ziotela gertu ikustea. Oñegatik, bera auñetik ibiltzen zan gelak gertutzen. Zetozenak erebestekoak edo baziran, añeta geiagoz aritzen zan oraindik; zijoazenean, emengo gauzen usai ona eramán zezaten.

Zetoñena apaiza edo apaiz gaia baldin bazan, etoñi oñduko, bonete batzuk eramaten zizkion, ondo zetorkiona aukeratu zezan; ezaguna bazun, gelan bertan ipiñiko zion neuñian zetorkiona. Bereala artuko zitun maleta ta zekartzin guztiak bere gain, eta auñetik, bide egiñaz, eramango zun, gertu zun gela aldera. Lenago, ordea, sartu-ertentxo bat jan-tokian egiñ erazi-



ko zion, zerbait artzeko; nagusiarengana ere ongi etoñia artzeko berak laguntzen zion.

Etxerakoan bezelaxe, joaterakoan: berak eraxten zitun traste guztiak, berak gertutzen zun gosaria, goizean goiz bazan, berak ekartzen zun berebila, bear zanean... dana berak». (Ori guzia Onaindia Anaiak).

Esan ditugunak urtean bein edo egiteko lanak balira, ez litzake ainbateko gauza, arietaz ta maitasunez egitea; baña oiek Deuston egunerokoak ziran; andik igarotzen etzanik ez bai zan, batez ere aldi batzuetan. Ba, egin itzazu zuk egunero lan oiek, iñoiz ere aspertu gabe, iñori arpegi asaferik jañi gabe, itz bat gogortxoago esan gabe, beste ezertxo egitekorik ez bazenuke bezelaxe... Santu izan bear ortarako!

Batzuetan gertatzen zan, oñelako orduetan etortzeko gaztiatuta zegona, ordua igarota, etzala ageri; egunez bazan, etzitzaion ardura aundirik, baña gabaz? Ba an egoten zan Garate zai; ta etoñitakoan, etzion muxiñ aundirik egingo, berak eramango zun jan-tokira, ta aparia berak ipiñiko zion maian.

Oraindik aldi asko ez dala Aba batek esaten zun: «Bein baño geiagotan egon nintzan añituta gizon añen urkoenganako maitasunari begira! Maiz, berandu etoñi beaña izaten nun, nere itzaldiak edo aitortzak eta abar zirala ta. Ba orduan Garate bera etoñi oi zan aparia ematera; ta sañitan besteak izan zuten baño zer-



bait geiago ekartzen zidan, maitekiro Jesukristoren itzak, bere erara, esanaz: «Dignus est operarius *mersede* sua». Lana egin duanak oñenbeste bear du.

Auek itz gutxitan, Lojendio Abari gertatu zitzaionak agertzen ditu. Aita au Deustoko irakasle zan auek jazo ziranean. Entzun berari:

«Valladolid'en nintzan ta etxera netoñen. Auñetik gaztigatu nion Anai Garateri elduko nintzan eguna ta ordua. Baña zer gertatuko, egun artan burnibideko langileen opoña jaiki zan. Ori zala-ta, oso berandu iritxi nintzan Bilbo'ra, ia gaberdian. Egon nintzan ostatu batera gaba igarotzera joan edo ez, ordu aietan etxe guztiarentzat nekeko ez izatearren. Baña ba ez pada ere, gabe-zaiak atea irikiko zidala beintzat, ta or nioa. Eldu naiz, ta atea txirt-irikian, argia zeriola... baten bat nere zai zegola esan naiez... Anai Garate zan: matxinadaren beñi jakin zun, ta bereala oartu zan berandutuko zitzaidala, ta an zegon neri itxaroten.

Ez ori bakañik: bereala egindu zidan zerbait artzera berarekin joateko jantokira. Ia gaberdizala-ta, obe izango zala, esan nion, len bai len oera joatea. Ezetz arek, astia bazala oraindik.

Alaxe egin nun: igo nintzan jan-tokira, ta Anai Garate nerekin. Gordeta zeukan aparria eman zidan, beroa gañera. Apaldu bitartean nerekin egon zan izketan. Gero, nere auñetik



joan zan nere gelaraño, bideko argiak piztuaz. An ere beñiz leioak itxita zeuzkan eta atea zabalik; al ziteken zaratarik gutxienaz, auzokoak oartu gabe gelan sartzeko.»

### *Kanpokoekin.*

Etxekoei on egitea, Garatek egiten zien bezela, ez da aiñ eñexa, baña anaiak zitun beintzat, ta aiei on ez egitekotan, zeñi egingo zion ba? Beartsuei on egitea beñiz, biotz oneko guztiak egiten duten gauza da... Ez aldago Garateren urko-maitasunaren beste agiririk?

Badago, ta ez nolanaikoa ala ere. Ate-ondora zijoazkion guztiak esango dizute on-utsa zala, ta auxe zala gizon aregan auñenena ikusten zuten gauza, ontasuna, maitetasuna, on-egin naia. Ekin daiogun.

Aren ondotik geiena ibiltzen ziranak ikasleak ziran, batez ere Bilbokoak, egunoro Deustora ikastoletara joaten ziranak. Gazteak biguñikeri asko oi dute, ta batez ere asko biltzen diranean ez dira atsegingañi izan oi, aien mendean, edo aiek nai dutena egiten egon bear duarentzat.

Ba egon zaitez zu nai zuten guztian atea zabaldu ta itxitzen, urutizkiñetik itz egin nai zutela, au bear zutela, ura aztu zitzaietela... ta nik al dakit zenbat oñelako...; ta ez zaitez iñoiz asañatu, ta ondo-ondo itz egiezu, ta bear



duten guztian lagundu egiezu, iñoiz ere itz gogorik esateke, beiñ ere bekozkorik jartzeke. Ba, ori egiten zun Anai Garatek mutil̄ aiekin. Ez dira gero motelak gazteak, batez ere «estudianteak» edonoren akatsak ezagutzeko, ta laister ala ere; etzioten ba Anai Garateri atxitu, ez bai zun nunbait.

Ezizen bat jaí zioten ordea. Zer jaíko? ta «Hermano Finuras» jaí zioten. Zergatik uste dezu?—Beti ondo artzen zituelako, ondo itzegiña, goxua, biguna, «piña» zalako.—Ezizenak geyenetan akats'en bategatik jaí oi dituzte: gure atezaiari ez; on-utsa ta biguña zalako «Hermano Finuras» deitu zioten. Amaika aldiz entzuten zitzaien: «Hermano Finuras santu aundi bat da». Ikusten bai zuten, gau ta egun, Anai Garate, beaiei laguntzeko bizi zala, Jainkoaren mirabe, beaien moíoi izanda.

Izan ere ez al zuten gutxitan ikusi, beaiek zirala ta etzirala, lanez ito beáean. Batez ere ikastaroaren (kursoaren) asieran mutil̄ak zetoztenean ikusgaía izaten zan Garate gizagajoa eskalak gora ta bera, aiek zekarzten tresna guziak gañean zituala.

Gau baten, gogoratzen naiz oraindik, (Perez Aíegi Aba ari zaizu) nola zijoan eskaletan gora, ia elbaíitu beáean, buru goíiaren gañean, ez-takit nolañoako maleta aundi bat zeramala. Erukitu egin giñan, ta arindu naiez asi giñazkion,



baña mundu guztitik berak eraman nai zun : alako baten oregatik kendu genion ta... etzan lumazkoa ; berak ala ere, utsa zala, ta zergatik laga ez eramaten.»

Atezai zanez, mutilen gauza asko jakin bear izaten zitun, batzuetan ez eder-edeñak ere ; batzuek ere ikasleetako baten bat etzela etxe artarako egiten-da, bere etxera bialdu beara zanean, edo norbaitek kalabazak zituala edo, gaiztakeriren bat egin zuela etxean edo auzoan eta... abar.

Garatek asko maite zitun mutiak, aietzaz gaizki esaka inortxorekin jarduteko ; etzion inork txitik ere aien aurka aterako, bear zan tokian, nagusiaren auean edo ez bazan : an bear bezela salatzen ba zekin baña.

Ikastaro baten asieran, etxean artu baño lenago mutiei egiten zieten azterketetan, (examinetan), bat ez ba ain ondo arkitu, ta arako etzala. Zurumuñua atera zan mutilen artean norbaiteri kalabazak eman zizkiotela, ta joan ziran Garateri galdetzera.

Bitartean kalabasak artu zituana ere, an zebilen ate-ondo inguruan bere pardela etxerako beñiro atontzen. Aren izerdi patzak, Anai Garatek zer edo zer salatuko ote zun, jakin naian zebiltzen beste mutilai...! Etzun bildurtzeko zegati (arazoi) aundirik! Jardun eta jardun egin aeren etzioten itz bat ere atera.

Baña zer esango zien, mutilen etxeakoak be-



rak galdetzen ziotenean ere, al zuana estaltzen ibili oi bazan orelako beñi itunak!

Ara beste ale bat. Orduan ere kalabasak ziran; muti bati edeñak eman bai zizkioten, ta mutiaren amak urutizkiñetik deitu zun Unibersidadera, semeak zer egin zun galdezka.

Garate jañi zan urutizkiñean, da erantzun zion, zeritzanez etzala aiñ ondo egon azterketetan aren semea.

«Baña, ze? Kalabasak eman al dizkiote?»

«Naiko motel erantzun omen du bai, egin dizkioten galderai», erantzun zion Garatek.

«Baña gizona! erantzun zaidazu beingo! kalabazak izan al ditu?» itandu zion beñiro andreak.

«Orelako zerbait izan omen du bai, gizajo arek.»

Ez ordea Garatek erantzun kalabazak izan zituanik. Miñ ematen bai zion, ainbeste maite zitun mutiatzaz orelakoak esatea. Al zuana, itzetan bada ere, gutxitu.

Bukatzeke Ibiñagabeitia Abari Garatekin gertatu zitzaiona, ta askotan Aba ari entzun ziotena jañiko det.

Ibiñagabeitia Aba ori, Deustoko nagusi zan. Egun baten etxeko baten eguna zuala ta, muti bati bazkaltzera joateko baiezkoa eman zion; baña orelako ordutarako etortzekotan, ikastolara joan al izateko.



Zuzen etoñi zan gure mutila, baña ara, atetik sartzerakoan, bere lagunak kanpora, Bilbora, zijoazten; jai eman bai zieten aratsalde artan. Orduan bera ere or zeak beñiz; uste bai zun, ikastolarik etzan ezkerro, goizeko agindutik aske zala. Andik pixkatera, Aita nagusia mutilaren galdeka Garaterengana. Etzala ba sartu etxean. Bereala deitzeko telefonotik, nagusiak, ta etoñi nai ez pa zun, oñelako bere gañ izango zula; gañera etortzen zan bezin laster, nagusiaren gelara joateko.

Etoñi zan, laster ala ere, gure mutila. Garatek ikusi zun zintzo jokatu zuela, ta lenago sartu ez bazan, onez izan zala. Oñegatik nagusien gelara joateko agintzeke, bere tokira bialdu zun; uste bai zun Nagusiaren naia naiko bete zala.

Andik gerora Nagusiak beñiz ere mutila etoñi al zan. Baietz, aspaldian ere etxean zala, erantzun zion. Asañe antzean esan zion orduan Nagusiak zergaitik bete etzan ba bere esana, mutilak bere auñean aurkeztu beañ zuala.

Garatek orduan apal-apal erantzun zion.

«Ara ba, nik uste nun zure naia beste ori izango zala.»

Nagusi oñek berak esaten zitun auek guztiak, ta bai ta goratu ere Garateren mutilenganako maitetasun bizia. Naiago berak, nagusiaren aseñea bere gañ artu, berak, ondo ibili zala uste zuan mutilak eraman beañ izatea baño.



Oek, urko-maitasunaren emaitzak dituzu;  
bere baú artan zeukan labe goriaren txinpar-  
tak. Norbaiteri uskeriak irudiko zazkio; bali-  
teke! baña Deunen urko-maitasuna orelako us-  
keriz bete-betia egon zan.



## APALTASUNA

Orain arteko ofialdietan ikusi izan dezakegu, Anai Garateren apaltasuna. Ala ere gai onetan geiago atxurtu bear degu; au bai zan arentzat onbide maiteenetako bat, bizi guztian landu zuena.

Begiratzea besterik ez zenun apal utsa zala jakiteko. Aren buru makur ura, aren bera-begiko begiak, aren itz egiteko era, dana apaltasuna zeriola zegon.

Gizon geienak geure buruetzaz ondo itz egiteko zale izaten gera. Etzitzaion Garateri itz bat ere aotik ateratzen, bere burua jasotzeko; bere gauzetzaz, beárezkorik etzala, beti ixilik. Besteai ere ezin zien entzun bere buruetzaz aritzen. Ikustekoa izaten zan, ze lotzaz ibiltzen zan, bere eguna zala-ta etxe guztia banan banan agur egitera joaten zitzaionean; ez bai zion bere buruari ofetarako ainbat zanik irizten.

Bein batean, besoa autzita euki zun, ta egunetan lotuta. Ori zala ta, Aita batek esaten digu, besoatzaz galde egin ziola, ta lenengo artan, oso biguñ zer gertatu zitzaion eta nola zegon, dana esan omen zion. Andik egun batzuetara ere beñero galdetu omen zion, eta, auñenean ainbat ez baña, eratzun omen zion. Irugañen



aldiz galdetu zionean, etzizaiola atsegin, nabaitu omen zun; andik auñera ez da geiago galdetu ere. Arek orixe nai, iñori kezkarik ez eman, iñork ez zezala beragatik ařetarik artu.

Noiz baiten gaxo egon zanean, miñik audiena onetxek ematen omen zion, iñorentzat kalteko izatea, alegia, norbait berari begira egon beařak. Ořegatik, esan oi zun, gaxo-zaiari buruko miñ gutxi eman ez il nai zukeala. Ala dio Anai Onaindiak: Aita Obeso il eta, andik egun batzuetara, Onaindia ori Garatekin ari omen zan mintzatzan, ta galde egin omen zion: «Zer derizkiozu Aita Obesoren eriotzari». «Zer esango dizut?; orixe dala onena ondo gertuta egon ezkerro: alegia, gaxozaiei lanik eman gabe iltzea.»

Oiek ořela izanik, esan beařik ere ez, zuriaketak eta itz biguñak etzirala azal artatik sartzen; leiar garbian euri tantak bezelaxe, ezer utzi gabe irizt egiten zuten. Entzun ere, geiennetan ez, ixil-ixilik beste gauzetaz asi, gaia aldatu ta kito.

Len esan degu etxean ziran gauzik kaxkařenak eta arloteenak beretzat izaten zituala. Ori bera zergatik, bere burua gutxitzat zeukalako ezpada? Jazkeran batez ere, besteak lagatakoa, beti eman bear izaten omen zioten. Orixegiten omen zun egin beařetan ere, iñork naiko etzuenari, berak eldu. Urte askotan izan bai



zan Anai Laguntzaleen agintari-ordeko ta lana banatzen ari zanean, beretzat neketsuena.

Iñoiz ez omen zun agintzen; beti «au egingo bazenu, edo beste ori naiago bedezu edo...» oñela beti; baña agindu: «ori egizazu» iñoiz ez.

Nere ustez, apaltasun sakon onetan zeukan sustraia, Gartek guztiei zien itzal, lotza arek. Moñoiei ere ark beti begirunez itz egiten omen zien, bera moñoien moñoi balitz bezelaxe. Zergatik ote? Nere ustez, guztien arteko txikieneztat bere burua jotzen zualako, apala zalako.

Aitatu degun itzal ori berezikoa izaten zan apaizakin ari zanean. Ondoan igarotzen zan guztietan burua makurtuaz agur egiten zien; itz egiten ziotenean beñiz, lotsatu egin bear apaizak ari begira: alakotxe apaltasunez egon oizan apaizen aurrean. Atsedean denboran (bazkal ondoan ta apal ondoan) danok batera zeuden tokira, baten bati beñiren bat ematera joan bear bazun, beti atzetik joaten zitzaion, begiak beraka zituala itz egingo zien, ta pauso (edo urats) bat edo bi atzeragotik.

Apala zanez, bere utsegiterik txikienak ere noiz nai aitortzen zitun; baita nai ez ta egingakoak ere. Oroimen argikoa izan zan; baña ala ta guztiz ere azkeneko urteetan gutxitu egin zitzaion; ainbeste bere gañ zeuzkanarentzat ez da añitzekoa. Ba, zerbait aztu ba zitzaion, bera izango zan lenen-lenen uts-egitea aitortzen, ta



otxan asko aitortu, ta baita barkapena eskatu ere.

Orelako utsegiteakaitik edo, norbaitek zakarki itz egiten bazion, etzan iñoiz bere buruaren alde ateratzen, ezta oregatik muxindu ere; ezer gertatu ez bazan bezelaxe aufera.

Gizartetik al zuala aldendu egiten zan; gizarte oretan bere gorapenak entzuteko bildur bazan, geiago.

1924 gañenean izan zitun, esan oi diran, urezko eztaiak. Orelako egunetan oitura danez, jai polit bat egin zitzaion. Ba an egon zan gixajoa lotsa-lotsa eginda. Bere jaietan baño geiago, auzian zegola zirudin. Biotz onez bai artzen zitun egiten zizkiotenak, ta alde ortatik pozik egon bear; baña berak uste, etzala orenbesterako ta lotsaz.

Goñiagoak izan ziran bere apaltasunarentzat ustez-uste gabe, beñ, jo zizkioten txaloak. Madrid'ko gobernuko ministro egin zuten, lenago Deuston Ikasten ibili zan Moreno-Zulueta jauna. Egun batzuetako Bilbora etoñia zan berau, ta orenbestez, aspaldiko lagunak bazkari bat eratu zioten Deustoko ikastetxean.

Bazkaritan asi zirala, ministro jaunak Garate beren artean pozik ikusiko zuala edo, azaldu zun. Bereala an agertu zan apal apal gure Garate ona. Ikusi zuten orduko maikide orok txaloka ekin zioten, ta luzaro ta in-



dafez jardun ere. Anai Garateren lotsa ta gofitzea! Unetxo baten itz egiten egon zan ministro Jaunarekin, ta bereala biurtu zan aldera; etzitzaion atsegiña izan eman zioten estutasuna.

Gizartetik urutiratzeko zun gogoagatik, beste aldera joan zaigunean ere argazkirik (esatekorik beintzat) ez digu laga. Ez ba oñen ondoren ibili etzirako, baña alpeñik izan zan. Begira.

Asko maite zun mutil batek, deuntzat bai zun, argazki (eretratu) bat atera naiien zebilkion. Zer egingo? Joan zaio berari esanaz ia nai al zun. Ezetz eta ezetz! Andik auñera ibili zan, uste gabe aterako ote zion, baña, besteak usaia artuta bai zun, iñoiz etzan aldean jañi.

Beste bein, Lagundiko Aita Nagusiak bialduta, Deustoko etxea ikustazera Aita Boetto (1), italiaña, etoñi zan. Ori zala-ta, etxeko jesulaguntalde osoa'ren argazki bat egin zuten. Garate ere aien tartean zan; baña itxu-itxuka ibili zan nunbait; beste baten atzean jañi zan, ta etzuan erten.

Andik gerora, Jesus'en Lagundiko Aita Nagusia bera etoñi zitzaigun (Donosti'n, eta Loyolan, eta Bilbon, Euskaleñi osoan jai edeñak egin zizkioten!) Deustora; ta orduan ere, ikustaldi

---

(1) Oraindik orain Aita Santuak, Kardinal egin du.



aren oroigarí talde guztiaren argazkia atera zuten. Garatek auñenekoa egin zuna gogoan Aita Nagusiak, ta oraingo onetan beste guziak bezelaxe, argazkian ertetzeko agindu zion. Oñi eskeñak; bestela gaur ez genuke Garateren argazkirik; daukagun ori ziztriñ asko da bai, argazkiaren izenaren jabe ia ez dana (1).

---

(1) Adrian Martinez, gure Lagundiko margolariak, Garate ii ezkerro egin du aren margo irudi bat. Ori da idaztitxo onen asieran jafi deguna.



## IRU ILTZAK

Lekaideak, erlijiosoak, Jaunari bere buruaren eskeintza egiten dionean, iru gauza auetxek bein betiko abintzen dizkio: beartsutasuna, garbitasuna eta menpetasuna.

Lekaidetzaren mamia iru eskeintz auetan dago. Eskeintz oiek dirala-ta, lekaidea Kristokin bat eginda bizi da. Iru eskeintz oriek, iru iltza omen dira, ta iltza oiek jozitzen omen dute lekaidea, Kristoren kurutzean. Kurutze maitea Garaterentzat; oregatik gogor josi zun bere burua iltza oien bidez, iñoiz ere kurutze artatik ez askatzeko.

### *Beartsu.*

«Beartsuen zoriona», esan zun beñ Palestinako mendi baten Kristo gure Jaunak; eta añezkero bere jañaitzaleak biotz begitan dute beartsutasuna.

Iñaxio Deunak, beartsutasuna, ama bezelaxe maite izateko agintzen zun... Garate, Iñaxioren seme maitalea izan zan, il arte, ontan ere.



Deuston bazan eskalepe naíax bat, argi pitin bat leiotila xistrin batetik sartzen zitzaiona... auxe aukeratu zun Garatek bere gelatzat. Bizaía kenduko bazun, belauniko jaíi bear izaten zun, argirik izango bazan; ala ere etzun nunbait argi geiegi; bizaía kendutako bakoitzean naiko ebaki eta odol izaten zun beñepeñ.

Gela eder oíen apaingai? Burnizko oe zar bat, exerleku txiki bat; aren gañean jaíi oi zun musua garbitzeko ontzia, erabili bear zuanean. Ormetan gurutzea, eta irudi jainkotiar bat: auxe zan guztia.

Zer? Ez al zegon ba Deuston, ura bezela lanean aritzen zan batentzat, gela erosoagorik? Egon bai! eman nai ere bai, eta jardun ere egiten zioten; baña ark entzun ere etzun nai izaten aldatzekorik... «Ama bezela» maite zualako txirotasuna.

Nolako jantziak erabiltzen zitun?

Etxe artako jantzien ardura, Anai Onaindiak zun. Onek dionez, jantzi beírik beñ ere ezin jantzi eragin izan omen zion. Besteak utzitakoak naikoak zirala beretzat, esan oi omen zion Garatek. Zenbat eta zaíago, obe, naiago.

Ori bai, jantzi garbia atsegin omen zitzaion; zikinkeria ez omen da ezertarako ona, ala zion, baña beírik, orixe bai ez!

«Sotana bat egin nai izan nion, orain dala amar urte (Onaindiaren itzak dituzu); ez nun



nunbait artean ondo ezagutzen Anai Garate. Sotana beña neri?, esan zidan; Aitak usten dizkitzutenak naiko ditut. Jantzitegian izaten ziran zarpa zar guztiak arentzat izaten ziran. Baten esan nion, ate inguruan ibili bear zuanak txukun jantzita egon bear zuala. Erantzun zidan: «Garbi eta egoki bai; baña jantzi zar eta arabakiz josiaz ibiltzeak ez du inoren lotsarik; soñeko beñiz jantzita ibiltzea, ori bai, oke-íago izango litzaioke, ni bezelako aiton zar bati...

Gañekorik etzun nai. Azken urte auetan ba-kañik jantzi zun alkondara azpikoa, osagiñeak eta Aita Nagusiak agindu ziotelako.

Oraindik asko ez dala, galtzerdi beñi batzuk ekañi zizkioten, baña arek ez erabili nai. Esan nion, erabiltzen ez bazitun, asañe izango zala ekañi zizkiona... Berak erabilia bezela eske-íak emango zizkiola, erantzun zidan... eta bi-tartean zañai eldu, eta nik emateko beñi aiek nai nuanari. Oñen antzeko istilua izan genun sudur-zapi batzuk ekañi zizkiotenean ere: beti oñelaxe jokatzen zun.»

Anai Ugartek orixe bera dio oñetakoetzaz: «Amazortzi urtean izan det etxe onetan, oñetakoen gora bera. Inolaz ere ez nun Garateri oñetako beñirik jantzi erazterik izan. Beti erabilia-koak bear zitun.»



*Garbi.*

Aingerutxo bat zirudin Anai Garatek. Garbitasuna ederki baño ederki ikusi zitekean bere arpegi eratsuan. Bai zala otxana bere izate guztia! Bere buru-gain zun nagusitasuna audienetakoa zan. Beragandik zerion deunen usai bezelako ura garbitasunaren aztañan bat zan.

Ez zan inñolaz ere bekoskodun edo entzungor, emakumezkoakin itz egin bear zun garaian. Gizalegez, kristau-maitasunez artu oi zitan emakumeak, arduraz jaramon egin ere. Baña eziñ uka, begirapen aundia ziela eta aiekin izketa luzerik etzuela nai izaten. Berez zertorkion eratasuna, aiekin izketan zegoanean; aiekin zitun itz jardunak motxak, zuñak, goitiar eta beti Jaunaren aurrean bizi zan batenak izan oi ziran

Gogoko garbitasuna ongienik eusteko bere burua ezi eta biotzkeriak menderatu bear ba-dira, ortantxe, bai, mutiñ genula gure Anaya, aurreko oritan ainbeste aldiz ikusi degunez.

Nola nai ere oso ondo bete zuala esan bear bere Aita Inñaxiok Jesusen Lagundiari jañi zion arau ura: «Garbitasunetzaz ez dago ezer esan beañik; aingeruen garbitasunera igo bear bai degu, bai gorputzez eta bai gogoz.» Arau onen kaltez utsegiñik nork artu ari?



*Besteren mende.*

Ez daukagu ezer erantsi bear aundirik len menpekotasunatzaz esandakoari; aren egite ugariak ondo erakusten digute nolakoa zan menpetasun ori. Egintza oietan garbi ikusten da bere nagusien esanak, bai ta erdi-esanak ere, Jainkoaren esanak bezela, artzen zituala. Oregatik, ayek esandako guztia buru-makur, pozik eta azkar artzen zun. Agindutakoa bazteñean uzteko, ez zun inoiz aitzakirik. Esandakoa, ume xalo batek bezela, egin oi zun.

Etzan Nagusien menpeko bakañik egoten; ba zitun bere gain beste zenbaitzuk, eta ortan agiri zan bikañago bere menpetasuna. Anai Garatek, ez bere kidekoak bakañik, baita bere azpikoak ere bere gain oi zituan; ortan arduratsu jokutzen zuan. Guztiak bere gañekotzat artu. Ez zion ajolik, ayek bere mendekoak izatea, aietantxe ikusten zegon-eta Jainkoaren iduria. Ortan etzun gaurko ludiaren antz aundirik. Emen dabiltz nor-geiagoka geien-geienak, batak besteari agindu naian. Arek Kempis'en aolku eder ura bete zun: «Apal-apal guztien eskupean jañi zaitez. Ez arduraz ibili nork esan ote duan edo nork agindua eman ote duan. Naiz gañekoa izan, naiz mendean dagona, edo zure kidekoa zuri zerbait eskatu edo erdi-erdie-



ratzen dizuna ; dana ontzat aritu eta betetzeari gogo zintzoz ekin.»

Antxe egon zan gure atezaia Bilbo guztiari ate-ingurutik besteen mende, besteen esanak egiñaz egotea zer dan erakusten. Irakasle ona benetan ; itzak ez, egiñak zitun irakasbide.

Menpetasun aren bidez Anai Garate Jaunaren naiari oso ezañita bizi izan zan ; ortik zetorkion, geiena beintzat, betiko pake eta baretasun ura. Ala izan bear ere ; lekaide bat menpetasun erpiñera eltzen danean, ludiarentzat egi-egitan ilda bai-dago, eta Jainkoarengan bizi da.



## BERE BURUA ILDURATZEN

Kempis'ek, Kristoren Antz-Bidean, auxe jartzen du deuntasunaren neurí: garbaia, alegia nork bere burua Jaungoikoagatik ezitzea; zenbat eta geiago ezi, ainbat eta deunago.

Loiolako Iñaxio Deunak ere orixe bera uste zun. Bein baten gizon batetzaz ari omen zitzakion, oso ona zala eta, Jainkoarekin bat egin da bizi zala eta... Erantzun zien: Egia izango da ori guzti ori, gizon ori bere burua iñ austen dakiena baldin bada.

Anai Garatek bere buruari aurka egiten al zion?

### *Lan eta lan.*

Goizetik gaberaño, atsedeen piñiñik gabe, lanean jo ta ke ari danak, naiko garbai (penitentzi) bere egikizunetan izaten du. *Mea maxima poenitentia vita communis* esan oi zun Berchmans'dar Joannes Deunak. «Nere garbairik ta ezipenik aundiena nere egunoroko eginkizunak ditut.» Ondo egin bear ordea egite oiek, ondo (ontan zeok lana), Jainkoagatik alegia, arek nai bezela, asaré gabe, pozik...

Orelaxe egiten zitun Anai Garatek. Irakuñi dituzun orain arteko oñaldietan garbi dago



aren lan zaletasuna. Beste edonor izan balitz ate ondoko lana naikoa ta geiegi izango zitzaien: An aña enkargu, an aña arutz eta onutz, an aña ařastaka... Batez ere mutilak sartzeko edo ertetzeko ordua zanean: antxe aien sařera banan banan zaitzen, garaiz etorri ote ziran, eta guztiak etorri ote ziran, edo ekaři bear etzuten zarbait ote zekarten eta... abar.

Atezaia omen zan, egia, ta lan ořekin agertzen da Lagundiko paperetan; baña beste zenbat lan txiki egiten zitun!! Oraindik il beři zala esaten zuten, orduan antz ematen ziotela zenbat gauzetara zabaltzen zan Anai Garateren ardura; ia beste ezer gabe gizon bat bear, ark pixkanaka, ixil-ixilik, egiten zitun lanetarako.

Iñungo ile mozte, kanpoko'en jan-tokia gertu, eta meza-laguntza... ta Jainkoak lagun! zenbat egin bear zitun bere gañ. Etxe artako mezaen diru kontua, ta mezak garaiz esatea ta ori guztia ere berak erabiltzen zun. Iltzen zego-la bete zun azkeneko aldiz egin bear ori. Deitu zion anai gaxozaiari ta esan zion, alako tokitan antxe zeuzkala egun artan ekaři zizkioten iru meza'ren diruak, ta norenak ziran eta dana... Baita ere esan zion guardasol batzuk osatzera bialiak zirala ta aiekin ere ez aztutzeko; Iltzen zego!

Langile puřukatua zenun beraz; ez ordea ludi onetako sariagatik; Jainkoari atsegin ema-



teaíen, urkoai laguntzeaíen, bere burua ezi-  
tzegatik. Berchmans Deunarekin esan zezaken :  
*Mea maxima poenitentia vita communis*. Ne-  
re penitentzirik auíena, eguneroko egin bea-  
rák ditut.

### *Beti antxe.*

Auíena, ez ordea bakaía.

Iñaxio Deunak Araudian agintzen du, La-  
gundikoak beaien buruaren ezipenik aundiena-  
ren ondoren beti ibili ditezela. Orixe bera opa  
zion bere buruari Garateren eredu Alfonso Deu-  
nak : «Zure etsai amoíatua izango zera!» Bete  
ote zitun Anai Garatek esan auek?

«*Dignus est operarius mercede sua*», «Lana  
egin duanak oíenbeste bear du» esan oi zien  
Anai Garatek bere anaiei, lanetik berandu eto-  
íi zirala eta, zerbait geiago ta obeago aparita-  
ko berak ekartzen zienean. Bere buruari etzion  
ordea oíelakorik iñoiz ere opa izan. Aste osoan  
lana eta jaiean ere antxe bere tokian, iñora  
gabe, atea zaitzen.

Ataritik gañezka igarotzen ziran bada tran-  
biak jai aíatsaldean arutz eta onutz; orobat  
berebilak Algortara ta abar, bete beteta. Etxe-  
ko atea ere saíiago irikitzen zan; biñaka edo  
iruñaka ibilaldia egitera bai zijuazen Garate'ren  
anaiak... Begoña'ra edo, Pagasaíira edo...  
nora alderdiak ikusi, eta aste guztirako aizez



birikak betetzera. Garate ez ote zan besteak bezelakoa? Ez ote zan beñere txulo artan aspertzen? Iñorako gogorik ez ote zitzaion egiten? Aspertu, ez aspertu, gogoak eman, ez eman... Ura antxe beti, ate ondoan, jai eta aste, igaz eta aurten... berdin.

Luzaroan, urtean beñ bakañik erten oi zun etxetik: len aitatu deguna, Iñauterietako ibil-deuna zala ta. Beste noizbaiten, nagusiak aginduta; ostean kito. Iñorako betarik izan ez balu, antxe egon beaña zuala ta kito; baña ez. Jaiero edo igandez batean, beste guziak bezelaxe arek ere nora nai ertetzeko eta lana lagatzeko eskubidea bazun. Ez nai ordea; Jainkoaren izenean antxe geldi.

Igande eta opor egunetan ikasleak, antxen, etxean bertan, jairik eta jolasik asko izaten zuten, Foot-ball'ko soroan, eta pelota lekuetan eta abar. Garate maiz arutz mutilen bati deika joan beañean izaten zan. Egundo etzan gelditu jokoai begira. Luñean begiak zituala joango zan eta bere egin-beaña bete orduko, zuzen-zuzen ate ondora. Iñoiz jardun zioten gelditzeko-edo, baña, «gaztean kontuak zirala aiek», eta pañez pañez alde egin.

Zinematographo, edo dalako ori, ere sañi izaten zuten mutilek; auñetik ondo aukeratutakoa ala ere. Etxekoak mutilen aitzakien, noizean bein juan oi ziran: Garatek egonaldi aun-



dirik etzun egin ari begira. Izan ere, ludiko gauzak etzioten onik egiten. Atsedean artze ori beñiz... ez al zeukan bada betikotasun osoa atsedean artzeko...?

Deustoko Ikastetxeak etxe koxkor bat bazun Bakio deritzan itxas-ertzeko erian. Udarajoaten ziran etxeko geienak egun batzuk igarotzera, atsedean artu eta murgil batzuk itxaso eder artan egiteko. Garaterenzat etzan izan; ez ba jardun etziotelako joateko eta joateko, baña alpeñik. Urte baten bestetan baño gogoñago ari zitzaizkion. «Nai badezute joango naiz; baño nere gogoz ezta izango.» Etxe ura ikusteke joan zan beste aldera.

1921 gañen urtean, Iñaxio Deuna zauritu zanetik lareun betezen ziralaa, eta Loyolan jai aundiak izan ziran. Garate Loyola auzokoa izanik, urte asko ziran alde aietan izan etzala. Nagusiak ba arutz biali zuten urte ontan, ango jai edeñak, eta ezagunak-eta ikusi zitzan.

Etzan berealakoan artara jañi, baña, agindua baizan, etoñi zan Loyolara. Goizeko berderatzietan etoñi, eta aratsalde erdian beñiz Bilborako gertuta zegon. Loyolako atezaiare anai Andres zan. Onak ezetz eta ezetz jardun zion: etzala egun baterako etoñi, eta gelditzeko; gela ere arentzat jañita zegola; gelditu bear zuala.

Alpeñik izan ziran jardunak; bere egitekoak



bete zituala eta zer egiñik etzuala an, eta bazi-joala. Baietz ba, nai bazuan joateko. Baña Andresek zer egingo, Elgoibarko berebiñaren ordua oker eman zion. Joan zan Prantzisko, esan bezela, berebiña artzera... Baña ordurako iges egin. Oraingo ontan etzuan jokorik irabazi; anaiak ziria sartu. Etoñi zan beñiro gizajoa etxera, ta atarian Andresek iñi pañez galde egin zion: «Ze, iges egin al dizu berebiñak? Ondo egin dizu!»

«Bai, bai! Zuzen esan bazenidan ordua, obeizango zan», erantzun zion, eta batere asañe gabe sartu zan etxean.

Iru egun egin zitun Loiolan. Zarata aundirik etzun atera. Etxe deuneko txoko baten igaro zitun ordu geienak. Eleiz-jaiak, beñiz, Basilikoko koru bazter batetik ikusi zitun.

Urte batzuk gerotxuago, bere anai Iñixiok uñezko eztaiak izan zitun Orduñako Ikastetxean. Ori zala ta, beste anai biei deitu zieten jai artarako. Gure Prantzisko, oi zuanez, aitzakitan ibili zan ez joateko, baña azkenean joan bear zala, eta artan zegon. Ontan Andresek Loiola' tik idatzi zion oñelako ordutako etoñiko zala Bilbora, biok batera egin zezaten andik Orduñarakoa.

Etoñi da Andres bere garaian Bilbora, eta Prantzisko azaldu ere ez geltokian. Ze izango ote zun kezketan jañai zion bidean. Orduñara



eldu zanean, artean an ere Prantzisko etzan azaldu; geroko trenen baten etoñiko zalakoan zeuden. Baña bazkari ordua ia zan, eta oraindik ageri ez. Onezkero etzetoñek ba... eta asi ziran. Alako baten or datoz anai Esteban Goenaga eta biak. Azkeneko trenean erten; eta etoñi ta lenengo gauza, Antigua'ko Amagana joan omen ziran, agur bat egitera, ta an zetozen bazkaiterako ozta-ozta.

Bazkaldu ta bereala Bilborako jañi ziran. Alpeñik jardun zioten gelditzeko, gau artarako ango mutilak jai eder bat eratuta zutela iru anai-entzat eta abar... Etzan gelditu; anaiak eta jaia utzita, bere ixkutapera.

Zergatik ote? Ez nai nunbait anaiekin egon?

Nai bai; baña bere burua gauza guzietan ezi nai; au gogoko bazitzaion, bestea artu!

### *Biotzari gogor.*

Teresatxo Deunak bere bizitzan aitortzen du, ezipenik neketsuenetako bat auxe izaten zuela: an konbentuan bere aizpakin bizi, eta aiekin geiagotan ez jardutzea; aiek laga, eta besteengana joan beaña.

Izan ere gizonaren biotzak, neuñi txikikokoa danez, bat edo birentzat izaten du bere maitasuna; ortik auñera gutxi zabaltzen da. Baña bi edo iru oientzat biotz guztia izan oi da;



aiekin beti egon bear, aietxekin gau ta egun ; eta egon ezik, naigabez...

Garatek ez ote zun bat edo beste artuagorik, maiteagorik? Gizona bai zan ura ere, bat edo besterengana indar aundiagoz joko zion biotzak... Baliteke ; baña iñoiz etzan orelako jorarik agertzen ; ez ta bere anaienganako ere.

Bere anai Andres'ek onen beñi ematen digu :

Bilbora joan beña zun guztian, Andres ori, Deustora joaten omen zan anaia ikustera. Beste guziei egiten zien aera on eta maitekoña egiten omen zion Prantziskok ; baña apurtxo baten izketan jardun orduko, jakin jakiñekoa omen zun :

«Ara Andres : Anai Goenagak poza izango du zurekin izketa aspertu bat egiten ; zoaz gorra.»

Andres'ek esaten omen zion, etzala Anai Goenagaren bila etoñi, bera zala-ta etoñi zala...

«Bai, baña, lan asko det, eta obe izango dezu igotzea...» eta joan egin bear.

Ori da biotzari gogor egitea ; ezertan ere ez utzi nai duana egiten!

### *Gorputzari erukirik ez.*

Biotzari ez ezik, gorputzari ere etzion gauza aundirik opa. Anai Balentin Etxebeñiari entzun diodana ipiñiko dizutet :

«Ni Oñan negon, eta Aita Smith Deustotik



etofí zitzaigun. Asi giñan izketan Deuston nola ziran eta abar, eta jardunaz Garate aitatu gendun.

Garate? (esan zigun) Edeía gertatu zait Garatekin!

Sartu naiz egun baten Elizan, eta aldare baten gauzak bear bezela etzeuden. Zer ote du gure Garatek ofen naíax gauza auek eukitzeko? Joan nintzan eta esan nion, aiek txukuntzeko. Baietz, esan zidan; al zuan bezin laster egingo zuala.

Urango eguna etofí, eta gauzak era berean, naíax. Aztu egin ote zaio ba? Esan nion beñiz ere ura etzegola ondo eta txukuntzeko. Baietz ba. Andik egun batzuetara gauzak lenean oraindik... Oraingoan piper antzean esan nion: Baña, Anai Garate, noiz egin bear dezu agindutakoa?

Ia negárez esan zidan: «Ara ba, Aita: Miñez ia makurtu eziñik nago. Lengokoan, ostegun santu eguneko aldarea ipintzen ari giñala, eskaletik bera, aingeru eta guzti erori nintzan, eta dana elbarítuta nago. Al bezin laster egingo det diozuna...»

Orduantxe jakin gendun zer gertatu zitzaion; ordu arte itzik etzun atera. Ura da gizona ura! miñez, eta iñori esan gabe.»

Etzun gero jolaseko gauza izan! Anai Elizegik dionez, bi saiets ezur auzi zitzaizkion eror-



tze artan! Ta ala ere eutsi antxe, iñori esan gabe lanean! Orixe da ba, gorputzari erukirik eza!

Aren antzeko ez geranok, beti iñetan oi gera: otza edo beroa, egualdi txarra, edo aize zaka... beti zerbait. Arek iñoiz ez omen zun orielakorik. Noiz baiten ortan asten ba ziran bere aurrean, «Jainkoak bialdutakoa ona zala», esan oi omen zun.

Zer geiago? Luñean lo egiten zuala askotan entzun degu. Baietz uste degu, baña gauza ziuñik ez. Auxe bai orégatik: izararik etzuela iñoiz ere erabiltzen.

Emen jantzitegiko ardura zunak diona:

«Beste guziaz bezelaxe, ari ere aldian aldian ipintzen genizkion beraren izarak, baña berak ekartzen zitun beriro zapitegira, erabili gabe; eta iñor oartu etzedin, ixil-ixilik maindire tokian jartzen zitun. Iñoiz, ni berak zer zebilen oartu nintzala ikusten ba zun, esan oi zidan: «Izara auek or alpeñik zeudenak dira.»

Ainbeste urtean bizi izan zan gelatxo iñun zistrin arek izketan baleki, baru artan Garatek bere buruari egiten zizkion laztazunik asko jakingo genduke. Iñunpean gelditu dira ordea. Ixkutuan ere ikusten gaitun Jaungoikoak, onuzkero sari edera eman dio.



## ZERURONTZ

«Bizitzan bezelaxe, eriotan ere alegindu bitzez Lagundikoak, Jaunari aintzik aundiena, ta lagun-urkoai jañabide ona ematen; gutxienez eraman eta kemen aundia ageriaz; Kristo gure Jaunak bere eziñ esanalako bizi-lanaz irabazi zizkigun ondasunei, sinismenez, itxaropenez eta maitasunez begira.»

Oñela mintzaten da Iñaxio Deuna Araudian. Auxe izan zan beraz Garateren azken eginbeñña. Nola gain eman zion?

*Sicut vita finis ita*, esaten du aspaldiko latinñ esaerak; eta euzkeratuta, «Nola bizi? ala iñ», entzun izan degu. Garateren azkena ere, oñelaxe izan zan: bizitzaren oiartzun. Bizitz deunari, eriotz deuna zegokion. Baita izan ere. Ara:

Anai Garate irurogei ta amairugañenean auñera zijoan. Beti, ustez beintzat, osasun onekoa izan zan; eta oraindik ala zeñaikion. Jakiña, urteak iñori ez bai diote barkatzen, ari ere bere lana egin zioten; eta aspaldi onetan makaltxoago ote zegon ere, ari ziran; baña guztiak onik



zegalakoan auñera; berak ez bai zun iñoiz ere  
iġletarik.

Oregatik ere, azken aldera, aparitan oso  
gutxi jaten zula oartu zioten, baña iñork txa-  
ragorik ez uste; lanean eta beti bezelaxe, jo  
ta ke, ikusten bai zuten. Ontan ixil-ixilik, uste  
gabe, *azken eguna*.



## IL AUÑEKO EGUNA

1929 gañengo Agoñeko Ama Birjiñaren jaiotz-eguna oraindik osoro ez zan zabaldu... Anai Garate, bostak bostetan, elizako ateak idekitzen ari zan. Amaika aldiz ideki zitun, eta ordun ideki zitun azkeneko... Uñengo goizean, berari idekiko zizkioten aingeruak, betikotasun zorioneko ateak.

Lenengo meza berak erasan zun; Jauna ere antxe artu zun. Gañerako otoitza ta goizeko lanak beti bezelaxe. Zortzirak aldean gexotegira joan zan, sabeleko aztuna arintzeko zerbaiten eske. Len ere iñoiz joan zan eskabide oñezaz, eta etzan gaxozaia estutu. Eskatu ziona eman zion ba, eta galdezka jardun zion makal al zan eta oñelakoak.

Garatek erantzun zion nastu aldi zuala. Geditzeko ba gaxotegian, oiean etzateko... esan zion orduan gaxozaiak. Ezetz berak; oñenbesterañoko etzala; eta beste gabe, egunoro bezelaxe, joan zan bere lanetara.

«Nik ez nion ondo-ezaren antzik eman, berak esan zidan arte. Igandero bezela agurtza (eñosarioa) biok batera esan genun. Amañak alde ortan, ondoeza zula esan zidan. Ezagun



zan: exerita egon bai zan luzaroan; eta exerita iñoiz etzan ura ikusten. Andik gerora gelara joan zan, nik, ikustaldi bat zala eta, deitunion arte.» Moñoiaren itzak dituzu oiek.

Oretan eguerdia. Garate etzan jun bazkaritara lenengo taldean. Oregatik bigaenerako joan zedin, ordeko bat etoñi zan ate zaitzera. Oni etzion bere gaxo bañirik Garatek esan; besteak beñiz, ezta nabaitu ere, ta an gelditu zan ate ondoan, Garate bazkaritara joan zalakoan.

Baña, alako baten ate zai ori, sartu da an aldameneko sala batera, ta... gure Anai Garate antxe, aulki baten exerita, bazkaritara joan gabe, oñazez.

Uretatu zitzaion, eta galdezka ari zitzaion, zer zun eta abar... Nastu aldi zuala, eta jateko gogorik ez, erantzun zion gaxoak. Orduan besteak, oeratzeko eta... jardun omen zion, baña erantzunez, bazkal ondoko kanpaia garaiz bere ordeztotzeko eskatu zion. Oñazeen artean, bere egin beaña gogoan!

Igo zan agindu bezela bestea kanpaia jotzera, eta baita gaxotegira ere, Garateren beñi gaxozaiari ematera. Berealaxe jetxi zan au, eta kuxkurtuta bere aulkian arkitu zun anai Gara-



te. Onek, oraindik ere, ezer etzala eta jardun zion: urdalean miñ antza zula, besterik ez. Ala ere, baietz, igoko zula gaxotegira.

Entzun orain Anai Onaindiari. Onetxek daki ederkienik, Garateren azken aratsalde beñi.

«Aratsaldeko iruterdietan jatxi zan beñiro ate ondora Anai Garate; geldi-geldi, ordea, ta neke aundiz.

Uferatu nitzaion galdezka: «Zer dezu, Anai Garate? gaxorik al zaude?»

Berak sabelera eskua eramanez: «Emengotxe miña, erantzun zidan; ez nago ondo».

Besterik etzidan esan. Arpegira begiratu nion ordea, eta iltzen dagonarena zirudin: begiak ere erten beañean.

Esan nion oera joateko, atsedean artu bear zuala, ondo ez zegon ezkerro. Erantzun zidan, len baño obetotxoago zegola ala ere. Ni joateko ibiltzera; bera geldituko zala ate zaitzen.

Ezetz, iñundik iñora ere, esan nion; etzala ortarako gauza bai, eta lenbailen oera joateko.

«Baña, ni naizala-ta emen geldituko al zera, ba, aratsalde osoan ibiltzera joateke.»

Baietz esan nion, ni geldituko nintzala, ta lenbailen etzatera joateko. Oraindik ere eze-tzean ibili zan, baña, oregatik ere, azkenean giltzak neri eman eta, joan zan bere gelatxora.

Etzan luzarorako izan; andik pixkatera gizon batekin zebilen, arutz eta onutz. Orduan



ogeita lau urte antxe bere moñoi izandako bat zan. Itz aldi motxa izan zuten ordea. Gizonak berak esan zidan erterakoan, izketako gogo gabe arkitu zula Anai Garate, eta berak esan zionez, egun aietan makal aldi zuela, eta oeratu bearko ote zun bildur zala.

Ni ez negon nere onean; j ikusten bai nun bere gelan sartu ta erten zebilela Anai Garate; oietako baten laña ere izan zun, botaka egiteko bezela. Gerotxoago, bostak eta laurdene-tan edo, bere gelara sartu, eta atea zearo itxi zun. Uíeratu nintzan zerbait entzuten ote nun, baña ezer ez. Beralatxe atarira etoñi nintzan, otska nitun eta.

Beñiz ere gelara alderatu nintzan, ezereen otsik ba zan, baña utsa. «Oean egongo dek ba» ta, bultz egin nion ateari, baña poliki-poliki. Gogoñean egin banun miñ emango nion; zutik bai zegon, antxe ate atzean. Otoitzean ari zan nunbait; eskuak beintzat bular gañean zitun, eta bera, ate ondoko iduriaren auñean otoitzen egoten zanean bezelaxe. Ta otoitzean gogotik ari zan nunbait; nik ateaz nai ta naiez eman nion bultzadaz etzan esnatu beintzat.

Galdetu nion zer ari zan bazteñik bazter... Etzidan ezer erantzun. Orduan esan nion, one-na, gaxotegira joatea zuela; bere txoko ziztrin ura etzala gaxo batentzak egokia.

«Bai ba, joango naiz gaxotegira etzatera.»



Auetxek izan ziran aren neretzako azken itzak. Ni ere itz gabe gelditu nintzan, zer erantzun ez nekiela, ildako arpegi ari begira.

Orduantxe bai joan nitzala bildurez atarira, noiz baño noiz, gelan, edo bidean, edo elizan ilko ote zan; arutz eta onutz aietan, elizan ere sañi sartzen bai zan. Oñela nere artean ari nitzala, Garate, beñiz ere, ate ondora; ta zuzeanean, bere lan gelari begiratu gabe, beste gelara, Ama Birjiñaren, eta Jose Deuna ta Alfonso Deunaren iduriak zitun gelara begiratu zun; gero, arutz begira, burua makurtu... eta eskaletan gora asi zan». (Ori guztia Anai Onaindiak.)

Beñogeita bi urtean jardun zun lanean atari artan. Geiago etzan bere oñez an sartuko... Azken aguía uraxe izan zan.

Eskaletan gora zijoala, auñez-auñe Aita Nagusiakin topo egin zun, au atarira zijoala. Garatek alderatu, ta esan zion: «Aita, ez nago ondo, ta gaxotegira noa.» «Zoaz, ondo da, esan zion Nagusiak; berealaxe an izango nauzu».

Oso gaizki zegola iduritu zitzaion nunbait Nagusiari. Izan ere, Garatek, iñork itandu gabe, gaizki zegola esateko, gaizki egon bear.

Bidean zijoala, mutilen elizatxo ondolik igarro zan; antxe egin zion Jaunari azkeneko ikusaldia. Zer esan ote zioten alkañi...? Jaunak esan oten zion laster ilko zala...?

Seirak izango ziran, Garate gaxotegian sartu zanean.



## ERIoTZA

Gerotxoago, Aita Nagusia gaxotegira joan zanean, Anai Garate ordurako oian zegon. Bere pake ta eramana aundiak ziran. Oregatik edo, inork etzun uste ainbesterañoiko izango zanik aren gaitza. Berak ere, al zuana, naigaberik ez emateaŕen, nunbait, gutxitu egiten bai zun. Laster sendatuko zalakoan zeuden beraz guztiak.

Baña amaikak aldean, inork ezer esan gabe, gaxoak berak Elizakoak eskatu zitun. Eskatu bezela ekaŕi ere; ez inork gaizki zegola uste zualako: baña berak nai zuan ezkerro, eman.

Osagilerik (medikurik) etzun aitatu ere egin Anai Garatek. Ardura ori nagusiei utzi zien. Auek, ba, ots egin zioten osagileari.

Etoŕi zan, eta gaxoari, oi dutenez, alde guttietatik begiratu ta, galderak egiñaz, «txixik eziñ egiña zula» esan zun. Garatek ere baietz esan zun; bi egun ba zituala txixik egin gabe.

Onetan osagilea asi zan «sondaren» bidez txixa atera naiez, baña ez bai ziran tresna oso onak, ezin atera. Bere etxera joan zan obeagoak ekartzera; baña aien bidez ere eziñ. Or-



duan, azkenekoa, «trokari» eldu zion, ta noiz edo noiz oregatik txis pixka bat atera zioten.

Garate gizajoa! Nai ta naiez oñazez egon bear, osagileak urak ateratzeko egin bear izan zizkionak zirala-ta; ala ere, itz bat ere etzun atera, ixil-ixilik egon zan bitarte osoan.

Aita nagusiak, erukiturik, galde egin zion oñaze aunditan al zegon. Berak apal-apal: «oñazerik ez, erantzun zion, miñ antza det». Miñ antza! Miñak baño indar geiago nunbait, bañuko Jainkoaren maitetasunak.

Osagilea ere añtuta zegon ari begira. Alako baten galdetu zion: «—Baña Anai Garate, nola egon zera orain arte ur oiek guztiak bañuan dituzula?» «—Nola? bestetan bezelaxe, noiz baiten joango zirala uste nualako.» Etzan beraz lenengo aldia! lenago ere gaitz ori izan zun, eta iñori itzik esan gabe lan da lan!

Ordu biak izango ziran, esan ditugunak bukatu ziranean. Ordu ortan alde egin zun osagileak; nagusia ere bere gelara joan zan, Anai Garatek lo egingo zualakoan.

Lauterdietan gaxo zaia ate joka zan nagusiaren atean. Anai Garatek azken igurtzia eskatu zuela, eta lenbailen gañera; gerorako uzten bazan etzala betarik izango ta; etxeko aitorlea sartu zala, eta onek meza ondoren emango zio-la agindu omen zion, baña Garatek, ezetz, len-



bailen emateko, etzegola astirik eta. Oregatik ematen ari zitzazkiola.

Nagusia jaiki eta joan zanerako, azken igurtzia bukatzen. Bereala gaxoa, ordura arte zai egon balitz bezelaxe, ori ori, ildako antzera jartzen asi zan. Beste gabe, Aita Nagusia ilen otoitzak esaten asi zitzaion Garate ixil-ixilik, geldi-geldi, otoitzak entzuten. Bukatu ziranean, orduntxe bertan, aiekin batera, Garateren lurreko bizitza ere amaitu zan, pakez, intzirik gabe, keñurik egiteke... Jainkoaren besoetan lo artu balu bezela...

1929 gañengo Agoñilaren bederatzia zan, goizeko zazpirak alde; Gipuzkoako zaindari, Arantzazuko Amaren eguna.

Bereala zabaldu zan il beñia Bilbon. Laster zan urutizkiña jo ta jo. Guziak samiñ-aguñ etxekoei emateko, eta eriotza nola izan zan eta gorputza ikusi al ziteken galdezka.

Laster asi ziran ezagunak ere, jubileua baño areago, bata bestearen ondoren, gorputza ikuster. Guziak ao batez itz auek esaten zituzten «Anai Garate Santua».

Gorputzari eñosario, eta kurutze eta oñelakoak ikutzen zizkioten. Asko, ark bizitzan izan zitun gauzen ondoren asi ziran. Berealaxe ixkutatu ziran geienak. Eske ari ziran guztiai zerbait emateko, aren sotana zar bat txiki-txiki egin, eta zatiak eman bear izan zizkieten.



Oste aundia izan zan aren ilkizunetan, eta ura obiratzera joan da. Luía eman baño pitinbat lenago gorputz-kutxa iriki zutenean, Jainkoak daki zenbat uíeratu ziran, beíz ere gorputz ura azkeneko aldiz ikusteko.

Deustoko kanpo-santuan dago gorputza, aragiaren piztueraren zai. Lagundiko beste anaiak ditu aldamenean. Gañean ańi landu bat du, latíñez idatzita.

I. H. S.

F. FRANCISCUS GARATE

SOC. IESU

OBIIT DIE IX SEPTEMBRIS

ANNI MCMXXIX

AETATIS LXXII

SOCIETATIS LV

R. I. P.

Euskerez auxe esan nai du :

I. H. S.

JESUS'EN LAGUNDIKO

GARATE'TAR PRANTZIZKO ANAIA

1929 GAÑENGO AGOÑAREN 9'AN

IL ZAN.

IRUROGEI TA AMABI URTE ZITUN.

LAGUNDIAN BEROGEI TA AMABOST.

GOIAN - BEGO.



## DEUN USAIA

### *Etxekoan artean.*

la lagundian sartu zanetik izan du Anai Garatek, santu izena. Poyannen bertan begiz jo zuten, eta aiezkeru usai ori laga du toki guztietan.

Ara nola asten dan Perez Aiegi Aba, Garateren erderazko bizitzan: «1910'gaiengo udaran igaro nitun, lenengo aldiz, egun batzuk, Deustoko Ikastetxe edo Unibersidadean.

Aruzkoan, egia esateko, neramazkin egin-kizunez gaiera, baneraman nere gogoan beste nai bizi bat; etxe artan atezai zana, nere begiz ezagutzea. Ainbeste gauza entzun baigenitun Garate'tar Prantzisko Anaietzaz; ainbeste goratu bai zizkiguten aren ekandun (birtute) gutxik oi bezalakoak. Goratu ere ez gero edozeieek eta nolana; geuretzat itzal aundikoak ziranak, eta ao batez santu deitzen ziotela gaiera.

Egun askorik ez nun igaro orduan Deuston; baia bai naikoa nere begiz ikusteko egia zala, anai Garate'tzaz entzun genuena; etzirala atzipetu atezaiaren ekanduak, birtuteak, ainbat goratzen zituztenak. Goitik asi ta beraio guziak etxe artan ere santutzat zuten».

Perez Aiegi Abari gertatu zitzaiona, beste



askori gertatu zaio Lagundian, Anai Garatekin. Izan ere, aginduta euki aŕen, oraindik ludi onetan bizi diranetzaz, onik geiegi (ba ez pada ere) ez esateko, Garate aitatzen zanean, gutxik betetzen zuten esan ori. Oso nabarmena bai zan, gizon aren santutasuna.

Dioguna egi agertzeko, bat edo besteren aitotak ekaŕiko ditugu; guzienak aitatu ere ezin bai ditezke; eta lenago esanak ere naiko dira.

Garcia Herero'Aba ara nola mintzatzen dan:

«Zer esan, guztiok Garateri genion, itzal eta maitasunaz! Anai Laguntzaŕeengandik asi-ta, egitan maite gendun. Bat bazan, laguntzaŕeen artean, izakera gogoŕekoa, Garate'ren auŕean arkumetxo bat ematen zun.

1902'gaŕen urtean, Bilbon, matxinada zan. Egun aietan il ziguten, Begoñako igoeran, etxe-ko baratza-zai Marañon gizona, Garateri itzal aundia ziona.

Orduan, ba, ni irakasle nintzan Deuston, eta nerekin batera beste Aita gazte bat. Au oso bildurtia zan, eta gizagajoa, egun aietan laŕi zan, noiz baño noiz matxinadakoak etxean sartuko ote zitzazkigun. Ez bai zan orduan baratzan, geroago egin zuten orma aundirik, ez ta atariko burnizko esirik ere. Gauza batek pozten zun nere laguna, ta aretxek zerbait paketu: ori, etxeke ate zai santua zan. Onek, soldadu



guztiak baño indar geiago omen zun, Jainkoakin esku aundia zualako.»

Gerotxoago, Garcia Herrero Aitak, (Perez Añegi Abari) bere iritxia ematen dio Anai Garretetzaz: «Zorionak, Garateren bizitza argitaratzeari ekin diozulako. Garate gure Anai Laguntzaileen eredurik eta jañabiderik onena izanda: apala, oneraspen (debozio) aundikoa, langilea, Jainkoaren eta urkoaren maitale zintzoa eta... abar.

Nere ustez on asko egingo die idazti oñek gure Anai Laguntzaileei; batez ere gaztetxoei. Or ikusiko bai dute, gaurko egunean ere, Inñaxio Deunak Laguntzaileentzat utzi zitun arauak, ederki betetzen dirala.»

Erasoa danean santuengana jotzeko oitura dute gizonak. Garatengana ere sañi joan oi ziran Jaunagandik zerbait iritxi nai zutenean. Esan beza Aita Güenetxeak.

Au, Deustoko mutil gazteen aitorle izan da urte askotan. Beraren bidez, Lagundiko, eta apaiz eta lekaide egindako asko dituzu. Jaunaren deia zun gazte oietako bat esku-artean bazun, eta nun edo nondik eragozpenak sortzen baziran, jainko bideari jañaitzeko, Güenetxea Aba, Garaterengana joan oi omen zan otoi eske, ta baita iritxi ere Jaunagandik nai zutena.

«Anai Garate Santuak egin niñun ni gizon! (esaten du Anai Elizegik.) Oraindik gogoan



det: Lagundian sartu eta bereala, Aita Ipiña ari zitzaidan Lagundikoak noraño deuntasunera igo bear zuten eta abar... Nik esan nion, Garate bezin gora igotzeko ez niola ba nere buruari irizten. Aita Ipiñak erantzun zidan orduan, baietz, Anai Garate gora baño gorago igo zala». Aita Ipiña ori, gure artean, aureneta-ko bat izan da deuntasunean eta zerurako bi-deak erakusten.

Bukatzeko, Garate il zanean, gure barutiko Jesulagun Buruak, il beñiarekin batera bialdu zun goralpena.

«Anai Garate, bere zaindari Alponso Rodriguez Deunaren jañaile osoa izan da, Deusto lkastetxeko atarian. Maitasunik sutsuena ikusi izan dute, beti, aregan, etxekoak eta auzokoak; batez ere beartsuenganako maitasuna. Aren oneraspen (debozio) beroa, begiruna, eta noiz nai bere utsegiteak aitortzeko apaltasuna nabarmen ageri izan da. Baita ere, añaña izan dira, guziekiko aren gozotasun, eramán iraunkor, lan zaletasun, bere buru ezitze, eta bere eginkizunetan beti izan zun zurtasun eta begi ona.»

*Ausokoen artean.*

Etxekoen itzak naiko ez badira, ara emen, auzokoak Deustoko atezaietzaz ziotena.

Baña... itzen beañean al gera? Il zaneko,



arek ikututako gauza guztiak, arapaztaka bai zeramazkiten, deunen gorpuzkiñak (erlikiak) baño areago!

Ala ere emen, «La Gaceta del Norte'k», «El Pueblo Vasco'k», eta «Euzkadik» aretzaz esan zutena. Lenengo biak, il da uringo egunean; Euzkadik gerotxoago.

«Anai Garate («La Gaceta del Norte» ari da) ainbeste bilbota'ek ezagutu zuten, Deusto Ikastetxeko, atezai atsegiñ, biguñ ura, atzo il zan Jaunaren beso gozoetan.

Gizaldi asko igaro dira Deustotik; izaera askoetako gizaseme eta emakume sartu dira etxe artako atean ba'ena... beartsu, aberats... Ba, ziur ziur nago atezaia il dala entzundakoan, ezagutu zutenen españ guzietatik, auxe erten baietz: «Anai Garate Santua.»

Ez da e'rex, izan ere, itz gutxiagotan Garate'ren izaera adierazten. Goxoa zenuten, atsegiña, ondo egiten zekiena...; beste on asko ere berekin zituna. Baña guztiak, ba'utik zetozkion; bere naimenaren inda'rez bere buruari beti gogor eginda.

Eta ori, Jainkoarekin batuta bizi diran biotzean baka'rik arkitzen da; Jainkoa bakar-baka'rik bilatzen dutenetan. Oiek bai, beren burua zearo ezten dute, ta beti ezi ere gañera; besteentzat, ordea, goxotasuna ta maitasuna besterik ez dute.



Oñela ari izan da Anai Garate Deustoko atarian 42 urteatan... 1888'gañengo udabeñetik, atzo goizean, deunen antzera il dan arte.

Bera bezelakoentzat, eriotza ez da bildur-gañi; bizitza obeagorako bide baizik.

Oñegatik, ereñegun añatsalde erdian, ate zaitzea laga-ta, gaxotegira joateko beartu zutenean, pake osoan igo zan gaxotegira, bere oñez igo ere. Oeratuta, berak eskatu zitun (iñork agindu gabe) Elizakoak; ori, gabeko lenengo orduetan. Goizaldera azken igurtzia.

Il zorian daudenen otoitzak amaitu zizkitenean, orduantxe, berak ere maitasunez eman zion Jaunari, Beragandik artutako gogoaa.» Ori dana «La Gaceta del Norte'k».

\* \* \*

«El Pueblo Vasco» oñela mintzatzen da:

«Atzo il zan Deustoko Ikastetxean Anai Garate, bizitza osoa Jaunaren mirabetzan apal-apal igaro-ta.

Oso maite zuten guztiak etxe artan; ona bai zan guztientzat eta aren izaera atsegiña. Ia Deusto danetik, an bizi izan da.

.....  
Anai Garateren doairik edeñenak, gozotasuna, eta eziñ geiagoko ontasuna ziran. Guztientzat maitagañi eta leguna zan: nagusi, ikasle, ikusle, aundi, txiki... guztientzat.



Beti, noiz nai, artutako lanen ardura oi zun; beti goxoa zan. Inoiz etzun ére-aldirik, beñ ere ez asaré bat. Ainbeste urteen buruan, bein baten ere etzan gizon aren pake eta baretasuna ezergatik ausi.

Bere eginbeaéetan, indar guztiaz jarduten zun, baña geiegirik-gabe, bear bezela; bere toki artan Jainkoaren mirabetzan ari zala oroituta. Mirabetza ortan, beñiz, oso pozik zegon, eta moíoitza oren ordañ, moíoitzarako gauza izatea, naiko.

Bilbon, adiskide asko zitun. Deuston ikasi zuten mutilak, beaien etxeakoak, ikastetxean bertan bizi diranak, guziak maite zuten. Berealaxe beraganatzen bai zitun berakin ari ziranak.

Aspalditik makal zebilen... eta ala ere, ino-ri bere ondo ezik azaldu gabe, lanean jardundu... Il auéko egunean, beartuta eraman zuten gaxotegira.

Atzo obiratu zuten... askok lagundu zioten kanpusantu bidean...»

\* \* \*

Urte bi geroago, Arantzadi'tar Ingartzik (Kizkitza), deuntasunetzaz «Euzkadi'n» idazten zun, Elizaren ezagugaí dala agertuaz. Deuntasunaz jardutean, Garatetzaz oroitu zan. Ara.

«Deun bat zer da?»



1889'gañen urtean sartu nintzan Deustoko Ikastetxean...

Antxe, atarian, arkitu nun Anai Garate, pa-  
rez-parez, biguñ, maiteki, zetozten guzieri la-  
guntzen. Urteak joan, eta urteak etoñi, orduko  
ikaslea gizon eginda, aspaldiko Ikastetxera,  
atejoka joaten nintzanean... antxe beñiz ere  
Anai Garate alai alai, gozoro, zijoakionari, afe-  
ra ona egiten!

Beñogeita bi urtean ez du besterik egin; ori  
ordea, al zuan ongiena, almen osoa artan ja-  
ñita. Eta ori eten gabe, aldakuntzarik gabe:  
beartsuei goitik begiratzeke; aberatsai loxin-  
txan jardutzeke; onai bezelaxe gaiztoei ere on  
egiñaz, bere gogoaren naiari ajolarik gabe.

Beñere etzun aitzakirik: arentzat etzan be-  
rorik, ez otzik, ez nekerik, ez naigaberik, ez bu-  
ruko miñik...! Beti alai, beti, zuri ondo egiteko,  
beste ezer ere ludian ez balitz bezelaxe. Antxe  
atarian beti lotuta, geldi; azkatasun pitiñik  
gabe. Atea eta urutizkiñaren mendean: gaz-  
tetan, eta gizaroan eta zartu eta gero ere; beti  
berdin, beti pakean, beti pozik.

Berdin, beti berdin! Zer bada? Ez ote zitun,  
ba, ark ere, beste guztiok oi ditugun neke eta  
samiñak? Ez! Neke eta samiñ oien goitik ze-  
golako; lan oietan Jaunak ipiñi dun gozotasun  
azkengabearen ituñia nabaitzen zuan eta.



Bizitzako jun etoñi neketsu eta aspeřgañian, Jainkoaren naia ikusten zun Anai Garatek, eta nai ori betetzen egon gure izatea...»

Or Bizkai osoak iru izpañingiren aoz aitortu zuana. Iru izpañingi oiek ez dira asmoetan alkañen antzekoak, bakoitzak bere politike berezia du: eta ala ere, irurak deuntasun ber bera somatu diote Anai Garateri. Ala izan, nunbait, ura, gizon deuna.



## GARATE BITARTEKO

Elizak iñor ez du adarera jasotzen (martiri izan ezik), il da gero, aren bitartez alatz edo miraririk iritxi ez bada.

Oregatik, deun usaian norbait iltzen danean, bereala aren bitartekotasun eske asko ibiltzen dira, bata edo bestea Jaunagandik bereganatzeko.

Garaterengana ere jo dute; eta beren us-tez, aren bitartez zerbait iritxi dutenak ere badiugu. Ez dizut ordea nik esango, lortu duten ori alatza edo miraria danik. Alatza izan, ez izan, lortu dutenak Garateri zor diotela uste dute.

Ara ale bat:

Lakoume'ren alargun, Gorostiola'tar Joana Andrea, 76 urtekoa, aspalditik biotzeko miñez zebilen. Baña joan dan urteko oñlean (maiatzean) oso gaizkitu zan. Orduan gertatu zitzaiona, bere seme Lakoume Aba, jesulagunak, oñela esaten du.

«Ni arutz (amaren ondora) joan nintzaneko, Elizakoak artuta zegon; eta biotza, bat batean, geldituko ote zitzaion bildur ziralako, azken otoitzak ere egin zizkioten. Ala ere, inyezio eta abar, igande osoa, eta astelen añatsalde arte iraun zun.



Ordun osagilea izan genun, eta joatekoan galdetu nion: Ze? Biar goiza ekañiko ote du?

«Baliteke, baña, asko da», erantzun zidan.

Gaberdian uste gendun bazijoala; aiñ gaizki. Goizeko irurak aldera nere ařebari esan nion: «Aita gure bat esan daiogun Anai Garateri, bere bitartez osasuna iritxi dezaion.» —Esan bear det, gaxoak Anai Garatek erabilitako eřosarioa eskuan zeukala. Esan gendun Aita gurea, eta andik pixkatera, atzedan artuzun gaxoak; gerotxoago, beste aldera jaři zan, eta... ala beařez, biotzaren gañean; gauza edeřa ez, biotzeko gaitza dutenentzat. Ala ere oso pakez, eta asnasa ere len baño askozaz geldia-go. Bururatu zitzaidan kordea osoro galdu ote zun ere, baña ez.

Ořela egon zan, atsedenean, bi ordu... Eguerdi aldera *ni ziur ziur* negon oraingoatik etzitzaigula joango gure ama. Ařatsaldean bertan Iruñarako ertetzeko bai edo ez egon nintzan. Azkenean uřengo egunean erten nun.

Gertatua orixe da. Egia, biotzekoa dutenak, ořelako batzuk izan oi dituztela, eta ořegatik, alatz gabe, miraririk gabe, gertatu zitekena zala... ala ere nik, Garate'ren ontartetzat artu det nere amaren sendatze ori, oso bere ezagunak giñan eta.»

Ori guzia Lakoume Abarena; orduan Iruñako Jesulagunen buru zan.



Oñelako beste batzuk ere badira; ez geiegi idaztitxo au luzatzeagatik, ez dizkitzut jañiko ordea.

Animako osasuna ere norbaiti iritxi dio Anai Garatek, elizakoak eta gañerakoak bear bezela, iñork uste etzuanari artu erazi-ta.

\* \* \*

Irakurle euskalduna! Gure artean deun beñi bat izan beañean ote gera? Jaungoiko gure Jaunak naiko ote du, gure basañietako lore ixkutu ori, Eleiza guziaren auñean jartzea?

Len ere izan dira euskaldunak, Eleiza guztia añituta laga dutenak: Loiola, Xabier, Berñotxoa... Zergatik ez beste bat?

Jaungoikoak naiko al du!

\* \* \*

## ANAI PRANZISKO GARATE'REN BITARTEZKO BEDERATZIUÑENA

Gurutze deunaren...

Nere Jesukristo Jauna.

Gure Jaungoiko guztiz maitagañia, zure deunetan aiñ añigañia zerana, ta ayetan aintzatuba izan nai dezun ori! Zure mirabe zintzo Jesus'en Lagundiko Anai Pranzisko Garate'ren gogoa apindu zendun onbide añigañiagatik, ta batez



ere, aren jaiera sutzu, apaltasun sakon, guztien-  
ganako biguntasun maitekoñagatik; eta aren  
deuntasuna asalduez, Zerori aintzatuba izan  
zaitezten: a'ren, iguzu orain ezkatzen dizugun  
mesedea. Bañan, gure eskaera au zure gogo-  
koa ez ba zaizu, eman iguzu zure aintzarako  
ta gure animen onerako dana. Ala izan dedila.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria Patri.

(Eskatutako mesedea iristen bada, esan  
apaizen bati, onek azaldu dezan «Jesus'en Bio-  
tzaren Deya'n».—Apartado 73.—Bilbao.)



## ARKI-BIDEA

OARA .....	5
ITZ-AUREA .....	7
GUZIA ONDO .....	11
Erekarte'n .....	16
Garatetařak .....	16
Aurtzaroa .....	19
Bidez-bide .....	23
Erbestean .....	26
Galizi'n .....	29
Deusto'n .....	35
BERE BIOTZ BARNA .....	38
Jesu-Laguna .....	38
Beti otoitzean .....	43
Aldare Aũfean .....	47
Kristoren maitale .....	51
Ama Birgiñaren babesean .....	54
Lagun urkoaren maitale .....	57
Beartsueķin .....	57
Etxeķoekin .....	59
Kanpoķoekin .....	66
Apaltasuna .....	72
Iru iltzak .....	78




<i>Beartsa</i> .....	78
<i>Garbi</i> .....	81
<i>Besteren mende</i> .....	82
<i>Bere burua ilduratzen</i> .....	84
<i>Lan eta lan</i> .....	84
<i>Beti antxe</i> .....	86
<i>Biotzari gogor</i> .....	90
<i>Gorputzari erukirik ez</i> .....	91
ZERURONTZ .....	94
<i>Il aurreko eguna</i> .....	96
<i>Eriotza</i> .....	101
<i>Deun usaia</i> .....	105
<i>Etxekoan artean</i> .....	105
<i>Auzokoan artean</i> .....	108
<i>Garate bitarteko</i> .....	114

---



82	.....	Genius
83	.....	Geni
83	.....	Genium mens
84	.....	Geni mens
84	.....	Geni mens
85	.....	Geni mens
86	.....	Geni mens
87	.....	Geni mens
88	.....	Geni mens
89	.....	Geni mens
90	.....	Geni mens
91	.....	Geni mens
92	.....	Geni mens
93	.....	Geni mens
94	.....	Geni mens
95	.....	Geni mens
96	.....	Geni mens
97	.....	Geni mens
98	.....	Geni mens
99	.....	Geni mens
100	.....	Geni mens
101	.....	Geni mens
102	.....	Geni mens
103	.....	Geni mens
104	.....	Geni mens
105	.....	Geni mens
106	.....	Geni mens
107	.....	Geni mens
108	.....	Geni mens
109	.....	Geni mens
110	.....	Geni mens
111	.....	Geni mens





Pranzisko Garate Anaya,  
Jesus'en Lagundikoa.



## ANAI PRANZISKO GARATE'REN BITARTEZKO BEDERATZIUENA

Gurutze deunaren...

Nere Jesukristo Jauna.



Gure Jaungoiko guztiz maitagafia, zure deunetan aĩn afigafia zerana, ta ayetan aintzatuba izan nai dezun orit Zure mirabe zintzo Jesus'en Lagundiko Anai Pranzisko Garate'ren gogoa apaindu zendun onbide afigafiagatik, ta batez ere, aren jaiera sutzu, apaltasun sakon, guztien-ganako biguntasun maitekoafagatik; eta aren deuntasuna asalduaz, Zerori aintzatuba izan zaitezten: afen, iguzu orain ezkatzen dizugun mesedea. Bañan, gure eskaera au zure gogokoa ez ba zaizu, eman iguzu zure aintzarako ta gure animen onerako dana. Ala izan dedila.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria Patri.

(Eskatutako mesedea iristen bada, esan apaizen bati, onek azaldu dezan «Jesus'en Biotzaren Deya'n».-Apartado 73.-Bilbao).

**GOTZAIN JAUNAREN BAIMENAKIN**

---

Jesus'en Biotzaren Deya-Apartado 73-Bilbao







